# ttipi ttapa

309

2001eko irailak 6 • XXI. urtea



## Joxe Landa eguraldi gizona 03

Xorroxin eta Karrape irratietako entzuleek, bertze zenbait komunikabideetakoek bezalaxe, badakite bere iragarpenen berri. Itziarrera joan gara ezagutzera.



## Arraioz garaile laxoa txapelketan 29

Duela bi urte bezalaxe, Baztan-Errekako laxoa txapelketa irabazi du Arraiozko laukoteak. Elizondoko finalean 9-7 irabazi zioten Doneztebe B taldeari.



04 Emakumeak «gizasemeen» lanean

# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**
*Alkaiagako industrialdean*
*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*





## 4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko

**Sukaldeak • Egongelak • Logelak • Bainugelak**





## DATUAK...

- Joxe Landa 1929ko maiatzaren 16an sortu zen. Berak uste duenez "maiatzaren erdialdea izanik segur trumoi gaua izan zela".
- 40 urtez nekazari izan da gurasoen baserrian. Ondotik baserritarrek sortutako ganadutegi eta kooperatiba batean lan egiten aritu zen gerente lanetan.
- Betidanik gustoko izan du eguraldiaren gorabeherak ikusi eta aztertzea. Euskal Herriko klima aldakorrak aunitz lagundu diela dio.



KARMELE TOLOSA

**Joxe LANDA** *Eguraldi gizona*

# «Iragarritakoaren gain ez garela konprometitzen esan ohi dugu»

Rakel GOÑI

**Noiz hasi zinen eguraldia aztertzen, behatzen...?**

Afizioa txiki txikitatik izan dugu, beste anai batek eta nik. Baserrian bizi ginen, laborantzan, horregatik beti eguraldiaren gorabeherei erreparatu diegu. Nekazal munduan izaten da eguraldia jakitearen premia berezia, lanak egin ahal izateko. Zerikusi handia izan du aita eta ama kezkatuak ikustea egingo zuen eguraldiarekin guk afizio hau garatzeko. Espektakulua ere iruditzen zitzaigun, trumoia entzutea, ekaitzak zetoztela ikustea... harrigarria zen. Eguraldia iragartzen geroago hasi ginen. 1990ean egunkari batean eguraldia emateko norbait behar zutela esan zidan lehengusu batek eta hor, Egunen, hasi nintzen eguneroko iragarpenak ematen.

**Eguraldiaren inguruko ikasketarik egin duzu?**

Ez, autodidakta naiz. Eguraldia antzematen hasi nintzenean ez zegoen ia mediorik. Behaketa zuzena egin behar zen. Euskal esaera zaharrek asko erakusten ziguten, animalien portaerak, gauza mordoa zegoen eta horrek asko laguntzen gintuen. Irratia ekarri zenean ematen ziren parteak gure usteekin konparatzen genituen. Anaiak azkenean *Meteosat* bat oparitu zidan, zeruaren irudia satelitetik hartzeko tresna, honek orduerdiro lurraren argazkia bidaltzen zuen. Telebista iritsi zenean informazio gehiago eduki genuen eta orain interneten bidez informazio asko jaso dezakegu.

> «Belarrak mozteko garaian daukat ez asmatzeko beldurrik gehien»

**Eguraldi gizonek errespontsabilitatea duzue emandako iragarpenetan?**

Bai, hori beti sentitzen dugu, baina gure burua nolabait salbatzearren esandakoaren gain *«ez garela konprometitzen»* esan ohi dugu. Jendeak guk dioguna sinisten badu bere kabuz izan beharko da. Halere beti duzu burutan emandako iragarpenak batek eta besteak sinistuko zutela, eta gero okerra bada ze nolako eragina izanen duen haiengan. Belarrak mozteko garaian daukat kezkarik gehien, gehienetan asmatzen dugu eta hori da gure pribilegioa, baina Euskal Herriko eguraldia den bezala izanda, batzutan txarkeriak ere egiten dizkigu.

**Egunkarietan hasi, irratietan jarraitu, hurrengoa telebista?**

Saio txiki bat egin izan dut Aire-Aire programan. Orain bitartean 5 irratitan ematen dut eguraldia egunero, Xorroxin eta Karrape barne.

**Euskal Meteorologoen Elkartea osatu berri duzue. Zeintzuk dira helburuak?**

Hemengotasuna nabarmendu nahi dugu, lurraldearen berezitasunak kontuan hartuz, hemengo detalleak, ohiturak, hizkuntza ahaztu gabe. Euskal sare meteorologikoa osatu nahiko genuke, estazioak ezarriz. Iragarpena zehatzagoa izatea lortu nahi dugu. Elizondo adibidez, sakon xamar dago eta behe laino ugari sortzen dira, hurbileko toki garai batean ordea, eguraldia asko alda daiteke.



# "Gizonezkoen" lanbideetan emakume trebeak

**Soldatzaileak, mekanikoak edo taxi gidariak dira, baina imaginatu dezakegunaren kontra emakumeak dira. Urteak daramazkite "gizonezkoenak" bakarrik ziren lanbideetan. Gaur egun inor ez da harritzen lanean ikusten dituenean baina hasieran ez zen denedako hala izan, harridura begiradak, zalantzak eta abar somatu zituzten. Hiru istorio hauek, argi uzten dute ez dela gizon edo emakumeen lanbiderik, horretarako trebea denarena baizik. Bereizketa hori, zorionez, pixkanaka desagertzen ari da.**

Testua: Rakel Goñi
Argazkiak: Mena Argazkiak / Karmele Tolosa / Artxiboa

Emakumeak dira baina aukeratu duten lanbidea, "gizonezkoena" bakarrik balitz bezala ikusi izan da duela gutti arte. Emakumeak etxean lan egitetik kanpoan lan egitera pasa zirenetik urte nahikotxo igaro da, baina halere "gizonezkoen" lanbideetan daudenak oraindik gutti dira. Harriduraz begiratzen ditugu eta denboraren poderioz ohituratzen gara: *«ez baitira emakume edo gizonezkoen lanik baizik eta lan horretarako trebezia duten ena»* azpimarratzen du Izaskun Portu soldatzaile Lesakarrak. Eskualdean zenbait adibide hartuta emakume hauen esperientzia nolakoa den jakin nahi izan dugu. Orokorrean ez dute momentu txarrik pasatu, baina, zenbaiten begiradek harridura eta kezka isladatzen zuten. Emakumea izaki, gizon baten lana egiten jakinen du? Erantzuna gehienetan baiezkoa da, emakume hauek gustoko zuten lana ikasi eta euren trebezia erakutsi dutelako. Pili Goñik Elizondon, "Bitxo"ren tailerrean, lan egiten du, motoak, desbrozadorak edo bizikletak konpontzen bertzeak bertze.

Ttikitatik baserrian lanean aritu zen, landan, belarra eta iretzea mozten, behi deizten eta gainontzeko lanak egiten. Etxean betidanik ibili zen traktorean eta ez die sekula makinei *«beldurrik»* izan. Geroago senarra ezagutu zuen eta ezkondu ondotik tailerrean laguntzen hasi zen. *«Lehenbizien pentsatzen zuten ea andre batek zer eginen zuen horrelako lan batean baina pixkeka denak jarri dire»* dio Pilik.

### Ile motza zuelako mutiko batekin nahasi zuten

Pili Goñiri ez diote behin ere gauza arrarorik erran, baina irriz anekdota berezi bat gogoratzen du: «*Oroitzen naiz behin hasi berria nintzenean, zirrika batzuk ekilibratzen ari nintzen bazter batean. Beti ile motza izan dut baina begarritakoak eramatea gustatzen zait. Egun hartan gizon bat niri begira jarri zitzaiten eta nik kasu handirik egin gabe lanean segitu nuen eta bapatean erran zaten:* "kentzizu hortik begarritako horiek!". *Txokatu zidan baina lanean segitu nuen eta*

*gizonak erran zuen:* "hau ere behar dugu ikusi mutikoa begarritakoekin!". *Ondoan zegoen gizon batek erran zion:* "utzazu andrea dela!." "Andrea? Bai to!" *erantzun zuen bertzeak»*

**EMAKUME NAHIZ GIZON LANA, GUSTOKOA IZATEA BEHARREZKOA DA**

Piliren ustez, berak egiten duen lana edozein emakumek egin dezake gustoko badu. Lanean gustora egotea da beharrezkoena, lanbidea gizonezkoen edo emakumezkoena den ez du garrantzirik.

*«Jendea kanpotik heldu denean harritzen da batez ere ni tailerrean ikusten nauenean»* zehazten du Pili Goñik.

Bere lanean ere bada gustoko ez duen gauzarik, elektronika adibidez ez du batere maite *«lau kable ikusi orduko nahasten naiz»*. Batez ere urratu eta berriz ere montatu daitezkeen gauzak gustoko ditu, motorrak, kanbioetako kajak, *«denetan aritzen naiz baina ardi eta behi deizteko makinak senarrak baino gehiago tokatzen zait konpontzea»*. Pilik hiru seme ditu, eta alaba izan balu, seguraski ez zion tailerrean sartzen utziko. Bere ustez *«lanbide hau arras zikine baita eta ez nuke hau nere alabarendako nahi»*.

## IZASKUN PORTU, Lesakako soldatzailea



Izaskun Portu Lesakarrak pelukeria ikasketak egin zituen lehenik eta Gasteizen ileapaindegi batean hasi zen lanean. Nekatu zenean, batez ere ordutegi eta soldatarekin, beste lanbide bat bilatu behar zuela pentsatu zuen.

**NOLA ERABAKI ZENUEN SOLDATZAILEA IZATEA?**

Gasteizko udalak Lanbide Hezkuntzako ikastaroak antolatzen ditu eta soldadurakoan apuntatu nintzen. Beti mekanika gustatu izan zait, pelukerian hasi baino lehen mekanika ikasten aritu nintzen. Sekadora bat eskutan dudanean, adibidez, desmontatzen dut barnean zer duen ikusteko. Izugarrizko zortea izan nuen ikastaroa bukatu baino lehen lanean hasi nintzelako.

**HORI DA BENETAN ZORTEA IZATEA...**

Bai hala da. Printzipioz ez da oso arrunta zuzenean soldatzaile lanerako emakumeak eskatzea, baina gure lantegia nahiko berria da eta jendea gaztea da, bai zuzendaritzan eta baita operarioak ere. Jenderik gabe gelditu ziren behin eta emakume bat hartu zuten. Bere lan egiteko modua gustatu zitzaien, eta hori dela eta, gehiago kontratatu dituzte, horien artean ni. Lanean finagoak garela diote baina nik, nere zalantzak ditut. Pertsonaren araberakoa da.

**SOLDATZAILE HASI ZINENEAN NORBAITEK ZEOZER ERRAN ZIZUN?**

Lantegian ez ziren batere harritu, baina ileapaindegian aipatu nuenean erotu nintzela esan zidaten.

Soldadura lanbide zaila da, urte aunitz behar dira soldatzaile ona izateko, konpetentzia beti da txarra, eta gainera, emakumea bazara pentsa ... Etxean ordea ongi hartu zuten, aita mekanikoa eta soldatzailea izanez ez dira asko harritu.

**KONKRETUKI NOLAKOA DA ZURE LANA?**

Soldadura diozu eta jendeak imaginatzen zaitu burnizko izugarrizko zutabeekin eta nik adibidez kaldereria fina egiten dut, bulegoetarako mobleak egiten ditut. Ez dut karga handirik hartzen.

## JOSEBE ALDABE, Doneztebeko taxi gidaria



Gidatzea zerbitzu bihurtzen denean, autobus, kamioi edo taxietan, gidaria gizonezkoa dela imaginatzen dugu. Kontrako adibidea hurbil dugu, Doneztében. Han Josebe Aldabe urroztarra, duela 5 urte taxia gidatzen hasi zen. Zorionez inoiz ez du inorengadik hitz txarrik entzun emakume gidaria izateagatik.

**NOLA ERABAKI ZENUEN TAXISTA IZATEA?**

Euskara irakasle izan nintzen, tartean ere dokumentazio lanetan eta aurkezle bezala ibili nintzen Euskal Telebistan. Taxiarena ustekabeko bidetik etorri zitzaidan. Lagun batek erran zidan Donezteben taxi plaza bat aterako zela. Hasieran ez nion garrantzi handirik eman. Halere betidanik banuen autonomo izateko gogoa, inor ere ez izatea nire gainetik, alegia. Oporretara joan nintzen eta han ongi pentsatu ondotik proba egitea erabaki nuen. Ez nekien non sartzen nintzen baina, 5 urte daramatzat taxi gidari.

**ZER DELA ETA USTE DUZU IA EZ DELA EMAKUMEGIDARIRIK ?**

Planteatu ere ez zen egiten. Orain dela gutti arte emakumeak etxean geldi-tu behar zuten haurrak izaten, hazten, etxekolanetaz eta baserriko lanetaz arduratzen... Mantso-mantso emakumea merkaturatzen hasi da. Adibidez, oraindik, taxi gidari garen emakumeak arras gutti gara Nafarroan, lizentziadunak banaka batzuk bertzerik ez garela uste dut. Lanak 24 orduz guardian egotea eskatzen dizu eta disponibilidade hori da bizitzan falta zaiguna. Gizaseme gidariekin izaten ahal dugun desberdintsunei dagokionez, ez dut uste alde handirik dagoenik, izatekotan ere bezeroaren tratuan, badakizu...gure sentsibilitatea eta... Emakumeok lan egiteko eta egoteko dugun modua diferentea da.

**TAXISTA IZATEAGATIK ZERBAIT ERRAN AL DIZUTE?**

Hasieran harridura aurpegiak antzeman nituen, baten batek ere zeozer erran zidan. Baina, azken finean, hau zerbitzu bat da eta klienteak horretan bakarrik erreparatu beharko luke, ez emakumea edo gizasemeak garen, baizik eta ea gure lana egoki betetzen dugun.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com/ttipi-ttapa**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Koritxi Klaber, Iban Isasi, Patxi Inarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 2.400 Pta. |
| Ipar Euskal Herria | 180 Libera |
| Europa | 4.600 Pta. |
| Amerika | 16.500 Pta. |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



**• GAURKOTASUNEKO GAIA •**

# Bi baztandar legionellaz kutsatuen artean

## Pertsonak eritasun kronikoa duenean, legionellak oso bortitz eragin diezaioke, eria hiltzera irits daiteke

**Saioa Rubio** *Mediku Lesakarra*

*Legionella pneumophilla* urean bizi den bakteria da. Ur geza biltzen den tokietan eta edangarria den ur sareetan egoten da. Gizakia legionellarekin infekta daiteke, dutxetako aerosolak arnastuta, haize egokituaeren sistemaren bidez, arnasa hartzeko terapiaren aparatuekin edo kutsatua dagoen uraren mikro-arnasketak eginda. Gizakien arteko kutsaketa ezin izan da frogatu. Orokorrean, infekzio helderiak, ur sare edo haize egokituaren sare bera erabiltzen dituzten instituzioetan agertu dira (ospitalak, hotelak, fabrikak...).
Eritasuna bi modutara ager daiteke, gizakiaren osasun egoeraren arabera. Osasun egoera onean dauden pertsonak, arrisku faktorerik ez dutenak, gripe baten antzera pasatzen dute legionellaren kutsadura. Gehienetan eria tratamendurik gabe sendatzen da.
Baina pertsonak eritasun kronikoa duenean,(diabetea, gibeleko zirrosia, minbizia, giltxurrinetako eritasunak, biriketako eritasun larriak) legionella askoz bortitzagoa izan daiteke. Legionarioaren Eritasuna izenez ezagutzen da. Edozein organorengan eragina izan dezake baina gehienetan biriketan kokatzen da. Sintomak: sukar handia, buruko mina, giharretako mina, eztula, bularretako mina, itotzen denaren sentsazioa eta abar izaten dira. Hauekin batera eriak beste sintoma ugari izan ditzake. Zenbait kasutan, Nafarroan gertatu bezala, eria hil daiteke. Orokorrean esan daiteke %16tik %21era dagoela hildakoen portzentaia. Tratamendurako antibiotikoak ematen zaizkio legionellaz kutsatu denari.
Hiperklorazioa (urari ohi baino kloro gehiago botatzea) eta ura 60º tik gora berotzea izaten dira prebentzio neurri gomendagarrienak. Gutti erabiltzen ditugun kanila eta dutxak 30 minutuz irekiak egotea izaten ohi da hoberena.

## Bagenekien nire izebak patologiak bazituela, baina legionella izan ez balu, ez zen hilko.

**Garbiñe Elizalde** *Legionellaz kutsatutako Elizondoko bi emakumeen iloba*

Nire izeba Julita Goñi uztailaren 23an Bideko Amaren ospitalean, Iruñean ingresatu zuten. Bagenekien patologiak (eritasunak) bazituela, baina sendatzen ari zen. Uztailaren 26an medikuak izebaren osasun egoera hoberantz egin zuela adierazi zigun. Bitartean medikuek bazuten legionellaz kutsatu izanaren susmoa, eta badaezpada, tratamendua ere ematen hasi ziren, familiak deus ere jakin gabe. Denok erabili genuen ur beroa, gure izeba ezin zen ohetik mugitu eta bera garbitzeko erabiltzen genuen guztia ur beroarekin garbitzen genuen. Abuztuaren 10ean MªJosefa Goñi, beste izeba, arras gaizki sentitu zen eta logela berean ingresatu zuten. Bere ahizpa zaintzen egon zen egun horietan, eta bera ere legionellaz kutsatu zen. Kasu honetan MªJosefak ez zuen inolako eritasunik, eta hala ere eritu zen. Bitartean familiari ez zitzaion inolako informaziorik eman eta deus jakin gabe espero ez genuena gertatu zen. Gau hartan bertan Julitak krisi larri bat izan zuen eta hil egin zen. Familiak badaezpada erabateko autopsia eskatu zuen. Bideko Amaren ospitalean legionella helderia bazela abisatu ziguten komunikabideetan atera baino bi ordu lehenago. Hori da ulertu ezin duguna.
Eri dagoen norbaiten atzean beti familia dago, eta informatua egotea merezi du. Medikuek nire izebak arras ongi tratatu dituzte, horrekin ez dugu inolako kexarik, baina Osasun Zerbitzutik lehenago informatu beharko ziguten. Batez ere prebentzio neurriak hartzeko. Beti burutan izanen dugu, lehenago jakin izan bagenu agian nire izeba MªJosefa ez zela erituko. Eta bertzalde, izeba Julitaren heriotza ez zen izanen espero ez genuen zerbait. Familia arras gaizki pasatzen ari da MªJosefa oraindik ospitalean dagoelako eta ez dakigulako handik aterako den ala ez. Momentuz hobekixeago dago baina oso larri egon da. Bi egunetan bi izeba galtzen genituela pentsatu izan dugu. Hori da inpotentzia eta amorrua. Edozeini gerta zekiguken. 18 pertsona eritu dira Nafarroan eta horietatik 6 hil dira, gehiegi dira. Osasun Sailarentzat zenbakiak bertzerik ez gara izanen, baina, bitartean senitarteko bat galdu dugu. Amesgaizto honetatik ahal bezain laster iratzartzea espero dugu.

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## ETA askatasunaren aurka

Batzutan ia iruditzen zait Euskal Herrian jasotzen ari garen egoera txar hau amets gaizto bat dela: ezin dela jendea hain krudela izan, ezinezkoa dela gauzak hain gaizki egitea.

Uztailaren 14an José Javier Múgica, Leitzako semea, erahil zuten. Sarritan berri mingarri hauek egun batzuk pasa ondoren ia ahaztuak gelditzen dira. Gai hauei buruz ez hitzegiteko ohitura txarra hartu dugu; hemen ez dela ezer gertatzen dirudi. Baina hilketa honek Nafarroako iparraldeko gure txoko honetan aro berri –eta oker– baten hasiera marka dezake. Demokratikoki hautatutako norbaiten aurka jarritako lehergailua, modu batean, bere hautesle guztiei zuzendutako heriotz mehatsua da. Leitzako UPNko jendearekin gertatu dena penagarria da. Horregatik, nahiz eta ideiak desberdinak izan, denen elkartasuna merezi dute, bere eskubideak errespetatuak izan daitezen.

Foru hauteskundetako emaitzak ikusten baditugu, adibidez, UPNk herri askotan zinegotziak izateko aukera izango luke. Baina ez dituzte zerrendarik aurkezten. Zergatik? Erantzuna garbia da: beldurrarengatik. Eta horrela, diktaduretan gertatzen den bezala, gure gizartearen parte bat ixildu behar da. Herri txiki bateko zinegotzia izatea ez da normalki negozio bat, kargu horrengatik orduak galtzen dira eta buruhauste asko ematen ditu, hori udaletan dauden guztiek badakite. Orain gainera, bai alderdi hortakoek eta bai PSOEkoek, atentatuak jasotzeko arriskua dute eta, behar bada, ez dituzte zerrendarik aurkeztuko. Alderdi hauen politikarekin ados ez egon arren, garbi dut ETAren mehatsuengatik populazioaren parte haundi bat ixilik egon behar den gizarte hau, ez dela nik nahi dudan Euskal Herria.

Erahilketak gaitzetsi egin behar dira. Hortarako ez zaio inori eskatzen hildakoaren ideiak bereak egitea, bakarrik esatea ez dela hil behar, ETAk ez duela eskubiderik inori bizitza kentzeko. Hain zaila da hori? Ez dugu bihotzik?

ETAk eta bere ondoan dauden horiek bultzatzen duten gatazkan, giza eskubideak bi aldeek urratzen dituzte, nahiz eta neurri eta modu desberdinean hori gertatu. Oso kezkagarria da torturaren gaia. Iruditzen zait, baita ere, dispertsioarekin bukatu beharko zela eta presoak Euskal Herrira edo hemendik gertu dauden espetxeetara ekarri. Baina egoera honetan aldaketak lortzeko, giza eskubideetan oinarritutako ekintza zabalak behar ditugu hemen, gure artean, eta ez gai hauen erabilpena gatazka berpizteko, sarritan gertatzen den bezala.

Enfrentamendu luze honekin denok galtzen ari gara. Katalunian adibidez askoz gehiago aurreratu dute bere kultura garatzeko. Sarritan irakurri dugu munduko kultur minoritarioen elkarteetako partaide asko hara doazela bere esperientzia ezagutzera. Ulergarria da hara joatea eta ez hona. Zertarako etorriko dira? Gure porrotak ikustera? Egoera hain ustela badugu, gurea da errua. Ezer egiten ez dugulako. ETAren atentatuen ondoren protesta konzentrazioak ia ez ditugu ezagutzen hemen.

Bukatzeko ohar bat. ETAren indarkeriaren aurretik Francorena jaso genuen eta gauza bat argi dago: diktadurak ez direla bakarrik joaten, herriak bota behar dituela.

**Andoni**
**ESPARZA LEIBAR**
**Igantzi, abuztuaren 19a**


Zure inguruа klase guztiako insektuz (kokorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-saguhoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara honetaz.
Termita eta Pollilen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • © 948453060

OKANE
HARATEGIA · URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

PIKABEA pintorak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Itzpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

Haritza
belardenda
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • © 948 630652

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



*Diario de Noticias*, 01eko abuztuaren 29a

*«Portugalen gelditu gero, bi urtez arituko nintzen nola nabilen ikusteko. Baliteke hango txirrindularitza gustatzea eta Portugalera bizitzera joatea, auskalo! Abenturazalea naiz eta horregatik asko gustatuz gero Portugalen geldituko nintzen».*

*«Profesionaletara pasatzea lortu dudala uste dut. Maila ona eman dudan arren zaila izanen da hemengo talderen batean gelditzea. iBanesto.com-ek erran du ez duela afizionatu gehiagorik hartuko; Once-Eroskin bat fitxatu dute jadanik eta bertzalde Manolo Saiz-ek beti 18-19 urteko txirrindulariak nahi izaten ditu, eta nik jadanik 23 ditut. Euskaltel taldea Olarrarekin ongi moldatzen da eta gainontzekoek ez dute hemen begiratzen ere. Italiara joan naiteke baina Portugalen dudan aukera ez dudala galdu behar uste dut».*

Jon BRU
Berako Txirrindularia
D. Noticias 01-08-29

## • 11 GALDERA LABUR •



### KANDI Fernandez *Elbeteko musikaria*

- **Sustraiak taldean egotetik, Labritekin jotzera aldaketa handia da?**
  Bai Sustraiak-en 80 kontzertu nituen urtero, orain lasaiagoa da, diska grabatzen ari gara oraindik.
- **Aunitz bidaiatu duzue, zein toki gustatu zaizu gehien?**
  Turin, Donostia bezala da baina 3 milioi biztanlerekin.
- **Elbeten laketu zara?**
  Zaila da beti kanpoan nagoelako baina herriko lasaitasuna aunitz maite dut.
- **Kantatu, musika jo edo produzitu?**
  Jo edo baita tekniko lana.
- **Semeak rokeroa izan nahi badu?**
  Gustoko duena egin dezala nahi dut.
- **Burua asentatu duzu?**
  Aspaldi! Beno gauza batzuetarako haurra naiz oraindik.
- **Gogorra da zure emaztearentzat zu beti etxetik kanpo egotea?**
  Arras ongi eramaten du. Halere egia da musikariekin bizitzea oso gogorra dela ez baikaude inoiz etxean.
- **Musikaria izan ezean zer izanen zinateke?**
  Elektronikoa.
- **Elbeteko bestetan joko duzu, urduri zaude?**
  Ez, arras harro nago. Pena ematen dit Legasan bizi nintzenean han jo ez izana.
- **Musikak piztiak lasaitzen ditu?**
  Ez diet piztiek galdetu baina, nire behiek askoz esne gehiago ematen zuten.
- **Desberdintasunik badago hegoalde eta iparraldeko publikoen artean?**
  Bai, xuria eta beltza bezala dira.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 - Tlfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948 631462
Altzate 1 • BERA
Xirgil

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia



• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tlfnoa: 45 23 74 - IRURITA

EUSKARA

# Euskara ikasteko matrikulazio kanpaina hasi da

Astean lau ordu aski direla diote eskualdeko Euskara Zerbitzu eta Euskaltegiek

**ttipittapa**

Aste batean lau ordu aski dira euskara ikasteko. Horixe da aurten Baztango, Bortzirietako, Leitzaldeko eta Malerrekako euskara zerbitzuek eta euskaltegiek antolatu duten matrikulazio kanpainaren leloa. Anitzetan herritarrak euskaltegietara ez joatearen arrazoia denbora falta izaten da. Hala ere, eguneroko bertze jardueretan hagitzez ere ordu gehiago ematen ditugu: 56 ordu lotan, 21 ordu telebista ikusten, 40 ordu lanean, 5 ordu komunean, 17 ordu otorduak prestatzen... Aldiz, nahikoa izanen litzateke euskaltegian 4 ordu ematea gure euskara maila hobetzeko.




ARTXIBOKOA

**Matrikulazio kanpainan erabiliko den bi orrikoaren azala: Aste batean 4 ordu aski dira euskara ikasteko.**

Iraila izaten da euskaltegietan izen emateko garaia eta kanpaina honek eskualde horietako herritarrak beren euskara maila hobetzera animatu nahi ditu, batetik, euskaraz ez dakitenek ikas dezaten eta bertzetik, euskaraz solasean aritzen direnak irakurtzen eta idazten treba daitezen.

Kanpaina bi fasetan eginen da: irailaren lehen hamabortzaldian lehena, herritarrak euskara ikastera anima daitezen eta bigarren hamabortzaldian bigarrena, euskaltegien eskaintza zehatzekin (ikastaro motak, izen emateari buruzko informazioa).

ABELTZAINTZA



# Esne-kuota eskatzeko epea irailaren 30a arte

400.000 kilotik beheitiko kuota izan behar da

Nafarroako abeltzainek irailaren 30a bitarteko epea izanen dute esne-kuota eskatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak onartutako Foru Aginduaren arabera. Araudiak dioenez, esne-kuota eskatzeko zenbait baldintza bete behar dituzte abeltzainek. Honela, 2001. urteko apirilaren 1ean 400.000 kilotik beheitiko kuota izatea eta kategoria hauetako baten barnean egotea: ogibide nagusia nekazaritza izatea, nekazari gaztea izatea edo baserria mendian edo leku txarrean egotea. Gainera, azken bortz kanpainetan esne-kuotak ez eman izana eta noski, esne-produkzioa behin betikoz uzteko programetan sartu ez izana eskatuko da.

Abeltzain bakoitzak eska dezaken kuota, apirilaren 1ean zuen kopuruaren arabera aldatuko da. 150.000 kilotik beheitiko bada, kopuru horren %33a bitarte eskatzen ahal du. 150.000 eta 250.000 kilo bitartekoa bada, %25a eta 250.000 eta 400.000 kilo bitartekoa bada, %10a. Eskariak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura departamenduko bulegoetan egin behar dira.

ERROTAZAR

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia

Agerra Auzoan

Maderas GOMEN



- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

BERA

# Laburmetrai emanaldiak izanen dira Kultur Etxean hilaren 17tik 21era

## 20 filmek parte hartzen dute Bidasoako Filme Laburren 4. Lehiaketan

Asier GOGORTZA

Bertizko Partzuergoak aurten laugarren aldiz antolatu duen filme laburren lehiaketan parte hartu duten lanak ikusgai izanen dira Beran irailaren 17, 18, 20 eta 21ean. Aurten inoiz baino filme guttiago sartu dira Nazioarteko lehiaketa horretan. Hogei filmeetatik gehienak zuzendari espainiarrek eginak dira, bainan euskal zinegileen zenbait lan ere ikusgai izanen dira: Maria Zamakola donostiarraren "Usoa", Inaz Fernandez bilbotarraren "Hauspo Soinua", Laura Belloso iruindarraren "El ultimo cuento", Pablo Malo donostiarraren "Jardines Deshabitados", eta azkenik Sara Mazkiaran altsasuarraren "Hide&Jekill". Bertzalde, urrunagotik ailegatu diren zuzendariak ere aipagatzeko modukoak dira, hala nola Safy Nebbou paristarra., Werther Germondari erromatarra edo Miguel Añon suitzarra. Lehiaketako filmeez gain "Lo que la verdad esconde" luzemetraia eta "Karramarro Uhartea" (haurrentzat) eskainiko dira emanaldietan. Beran ez ezik, Doneztebe, Hondarribia eta Hendaian ere eskainiko dira filmeak.



BERTIZKO PARTZUERGOA

Maria Zamakola donostiarraren «Usoa» filmearen fotograma.

## ERAKUSKETAK

### Marco Polo eta Baztan

Irailaren 12ra arte Marco Polo izeneko erakusketa antolatu du Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendaritza Nagusiak Kultur Etxean. Ekialdeari begirada berezia proposatzen du erakusketak, Marco Poloren mitoetatik abiatuta.

Irailaren 14tik aitzinera, berriz, Juan Lameriñas elizondarra eta Joxe Erregerena erratzuarrek Baztango argazkien erakusketa jarriko dute toki berean.



### Fernando Etxegarai garaile Agerran

Herriko bestetan Euskal Herriko koxkor biltze txapela jantzi ondotik, Agerrako bestetan Luis Mari Apeztegiaren omenez egindako krosean garaile suertatu zen Fernando Etxegarai korrikalari beratarra. Beteranoetan Batista Telletxea eta jubeniletan Mikel Mutuberria nagusitu ziren.

## FLASH

### Eneko eta Xabi

Bi gazteek dagoeneko urtea bete dute gartzelan, oraindik beraien kontrako inolako epaiketarik egin ez den arren. Alcala Mecon (Madril) segitzen dute biek.

### 3.540 biztanle

Aurtengo datuak dira hoiexek. Beran 3.540 biztanle bizi gara, hoietatik 1.752 emakumezkoak eta 1.788 gizonezkoak.

### Zinegotzi berria

Ainhoa Goñi Petrirena Eusko Alkartasunako zinegotziak dimititu ondotik Juan Enrique Abrilek hartu du bere tokia Udalean.

### Ezkondu gabeko bikoteen erregistroa

Ezkondu gabeko bikote egonkorren Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko ordenantza hasiera batez onetsi du Udalak.

### Illekuetako bestak

Irailaren 15 eta 16ean ospatuko dira aurtengo Illekuetako bestak. Larunbatean haurrentzat jokoak eta plater tiraketa eginen dira, eta ilunabarrean Gure Txokoako dantzarien saioa izanen da. Ondotik, Irats trikitixa taldeak bere emanaldia eskainiko du. Igandean, meza eta auzokoen bazkaria izanen dira ekitaldi nagusiak.









LESAKA

# Ainara Fresneda libre utzi dute baldintzapeko askatasunean

## Bortz milioi pezetako fidantza ordaindu behar izan du

Aitor AROTZENA

Ainara Fresneda Etxeberria gaztea baldintzapeko askatasunean libre utzi zuen Ruiz de Polanco epaileak abuztuaren 22an. Jakina denez, martxoan atxilotu zuen guardiazibilak Ainara Behobiako bere lantokian, ETAko kideei muga pasatzeko laguntza ematearen akusaziopean. Guardia Zibilaren eskuetan egondako egunetan torturatu egin zutela salatu zuen Ainarak. Gero, Soto del Real eta Alcalá-Mecoko espetxeetan izan zen. Kartzelan zegoela larri eritu eta beharrezko tratamendua bertan ematea ezinezkoa zenez, bere etxera joateko baimena eman zion epaileak Ainarari uztailaren 10ean. Etxean izan arren, Ainararen egoera ez zen batere xamurra: bakar-bakarrik tratamendua hartzera atera zitekeen etxetik eta eguneko 24 orduetan guardiazibilaren bi Patrol zituen etxe atarian zaindari.

Modu honetan bere osasunak onera ezin zuela egin eta familiak duen ostatuari kalte egiten ziola adieraziz, Ainara aske uztea eskatu zuen udal batzarrak aho batez, udako oporraldiaren aitzinetik egindako azken batzarrean. Hilabete geroago, bortz milioi pezetako fidantza ordaindu ondotik, epaileak baldintzapeko askatasunean utzi zuen Ainara. Orain, epaiketa egin bitartean, hamabortz egunetik behin aurkeztu behar du Berako bake epaitegira eta ezin izanen du estatutik atera. Gainera, bi hilabetero bere osasunari buruzko mediku txostena aurkeztu beharko du.



GARBIÑE SARASOLAK UTZIA

**Abuztuaren 11n Pontevedrako Cordeiro herriko jaialdian parte hartu zuen Tantirumairu dantza taldeak, Kantabria, Portugal, Ferrol eta Cordeiro bertako dantza taldeekin eta Rianxoko gaitajoleekin batera.**

FLASH

### *Errepidearen moldaketa*

N-121 errepidea, eta bereziki Bera eta Endarlatsa tartea, lehenbailehen moldatzea eskatu dio Jose Luis Etxegarai alkateak Nafarroako Gobernuari. Lehendik ere eskaera hori egina dute auniztan inguru honetako alkateek, baina Etxegaraik eskaria berritu egin du Amabirjin egunean Montoian izandako istripuaren ondotik. Istripu honetan, elgoibartar bat hil zen.

Alkateak gogorazi duenez, ekainean, Nafarroako Parlamentuko batzorde berezi batek Bera-Endarlatsa tartea lehenbailehen egitea eta Endarlatsa-Behobia tartea egiteko Gipuzkoako Diputazioarekin akordio batera ailegatzea eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Europarekin lotura azkarra lortzeaz gain, istripu gehiago ez izatea du helburu eskariak.

BESTAK

### *Aspaldiko partez, Bittiriako bestak irailaren 14tik 16ra ospatuko dira*

Urteak ziren Bittiriako bestak ospatzen ez zirela, baina aurten, auzoko gazte talde baten ekimenez, irailaren 14tik 16ra eginen dira. Ortziral arratseko 9etan botako da txupinazoa, trikitilarien laguntzarekin. 11etan rock kontzertua izanen da Kizio eta Onddo taldeekin.

Larunbat goizeko 9etan txistularien diana izanen da. 12etan pilota txapelketaren finala jokatuko da. 1,30etan bertso-poteoa eginen da eta gero saioa eskainiko dute Bittiriako Plazan. Leku berean, auzo bazkaria izanen da. Arratsaldeko 7,30etan Pontevedrako Cordeiro-Valga herriko Xiabre dantza taldearekin kalejira izanen da. Gero, talde honek eta Tantirumairuk saioa eskainiko dute. Gauez, dantzaldia izanen da Begira taldearekin.

Igandean, azkenik, 12etan auzotarren arteko herri kirol apostuak jokatuko dira. 4etan haur jokuak izanen dira eta 6etan mus txapelketa. Arratseko 9etan akautuko dira bestak.

ANA janaridenda
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
☎ 948637573 • LESAKA

Larrinde...
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 • ☎ 948637791 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

## ETXALAR





Patxiku IRISARRI

**Herriko bestetako ekintzarik aipagarrienetariko bat azkeneko eguneko asaua da eta argazkian ikus daiteke ermitako zelaian bizitu zen giro ederrean zein ongi pasatu zuten joandako 170 pertsonek.**

# Igande honetan izanen da azkenean Usategietako Auto Igoera

Lorpen galtzerdi enpresa martxan paratu da lantoki berrian

**Joseba eta Nerea**

Denon ahotan zebilen aspalditik aurtengo auto-igoera eginen zen edo ez. Azkenean, Etxalarko Udala eta antolatzailea den Eguzki Sport Eskuderiaren artean adostasunera ailegatu dira bertze urte batez Usategietako-igoera aitzinera eramateko. Arazoak urte honetako maiatzean hasi ziren: Gorosurreta eta Lakain-Apezborro auzoetako bizilagunek kexa aurkeztu zuten udaletxean auzoetako pistetan kotxerik ez ibiltzea eta entrenamenduak guttitzea eskatuz.

Hori dela eta Udalak hainbat baldintza paratu zizkion Eguzki Sport-i auto-igoera antzinera atera ahal izateko; horien artean entrenamenduak irailaren 8ra, aitzineko egunera, mugatzea eta Gorosurreta auzoko pistetan barrena ibiltzea debekatzea izan ziren. Baldintza hauek Eguzki Sport-ek partehartzaile guzieí jakinarazi dizkie bidalitako ohar baten bidez. Beraz, azkenean, aurtengoan ere usategietako bidea kotxe-soinduz beteko da irailaren 9an.

**Egitaraua**

Goizeko 7:45etan bilduko dira Etxalarko hotelean partehartzaile guziak bertan kotxeen inspekzioa egiteko. 10:00etan irteera puntura hurbilduko dira, orduerdi beranduago entrenamendu-saioarekin hasteko. 12:00etan emanen zaio hasiera lehenbiziko txandari eta segidan eginen da bigarrena. Akautzeko, 15:30etan plazan sari banaketa eginen da.

## HEZKUNTZA

### *Berriz ere eskolara*

Udaren akabilaren seinale nabarienetako bat eskolek berriz ere beraien ateak irekitzen dituztela da. Modu honetan, udako azkeneko egunak ongi aprobetxatu ondotik, irailaren 6an herriko haur guziek elkar ikusiko dute Landagain eskolan. Aurtengoan iaz baino 4 ikasle guttiago daude 8 atera baitira eta 4 sartu. Azken hauen izenak hauexek dira: Ixaka Labaddie (Basatea), Jon Iparragirre (Urtzelai) eta Julen Telletxea (Arangoa) haur hezkuntzan eta Aitor Gavilan (Antsolokuetako etxe berriak) lehen zikloan. Irakasleen aldetik, azken 25 urte hauetan hemen izan den Enkarnita Duval ez da aurten Etxalarren izanen, ondorioz, Mari Jose Gamio haur hezkuntzako irakasleak hartuko du ikastetxearen zuzendaritza.

## FLASH

### *Antsolokuetako bestak*

Herriko besten ondotik, Antsolokuetan berriz ere bestan murgildu ziren joan den igandean, irailak 2. Urtero legez, irailaren lehenbiziko igandea aprobetxatu zuten bazkari eder baten inguruan biltzeko. Arratsaldean Joseba eta Estitxu trikitilariek alaitu zituzten auzo-bazterrak eta eguna eguerdiko haragi sobrantearekin eginiko fritadarekin, afari gisa, akautu zuten.

### *Usategietako postuen enkantea*

Larunbat honetan eginen da, irailak 8, udaletxeko areto nagusian eguerdiko hamabietan.












IGANTZI

# Nick Etxarte txapeldun Estatu Batuetako kirol proba berezian

## 100 urterekin hil da uda honetan Molineako Joxepa Iguzkiagirre

**Oskar TXOPERENA**

Estatu Batuetako Dixon hiritik berri polita hartu dugu. Igantzitik bertara joandako Nicolas Etxarte Merkatenekoaren semea -Nick- trebea omen da nonbait Estatu Batuetan hain maite dituzten kirol berezi horietako batean. Kamioi indartsuak gidatzeko abilezia eta belar fardoak egin eta desegiteko trebezia nahasten ditu kirol honek, eta Nick Nevadako Yerington hirian abuztuan jokatu den proba famatuan lehendabiziko gelditu da. Goraintziak irabazleari, familiari eta, bidenabar, Ameriketan TTIPI-TTAPA hartzen duten igantziar guziei.



Oskar TXOPERENA

**Bikote gaztea izan da aurtengo Igantziko Pala Txapelketaren irabazlea. Asier Santesteban eta Mikel Arburua lehengusuek irabazi zuten txapela, Bittor eta Xebe Txoperenaren -lehengusuak hauek ere- aurka abuztuaren 4an jokatutako finalean. Jendearen erranetan, hagitz maila polita izan du aurtengo txapelketak. Orain, bestak arte iraunen duen haurren eskuzko herriko pilota txapelketaren txanda heldu da.**

### *Bestak gainean*

Hurrengo alean agertuko dugu bestetako egitaraua, baina, oraingoz, zein egunetan izanen diren jakinaraziko dugu: irailaren 27, 28, 29 eta 30ean eta urriaren 1ean.

FLASH



### *Biltoki Elkartea berriz ere zabalik moldaketen ondotik*

Egindako moldaketengatik hilabete pare batez itxita egon ondotik, abuztuaren 3an zabaldu zituen berriro ateak Biltoki Elkarteak. Batzarrean onartu bezala, sukaldean egin dira moldaketa gehienak, eta bazkide gehienak hagitz gustura daude egindakoarekin.

### *Joxepa Iguzkiagirre 100 urtetan hil da*

100 urte bete berri-berriak zituenean, abuztuaren 6an hil zen Berrizaun auzoko Molinean Joxepa Iguzkiagirre. Uztailaren 27an, 100 urte bete zituen egunean, Berrizaungo auzotarrek, omenaldi xume gisara, opari bat eman zioten. Azken urteotan 100 urtetara iritsi zen bigarren igantziarra zen Joxepa, Basilio Etxeberria Iriberekoa 97an hil baitzen 103 urterekin.





EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

BERRIZAUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezes
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 627572 • Faxa: 948 637508

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313


LESAKA

## ARANTZA

# Gobernuaren azken dekretua salatu du Euskara Mankomunidadeak

### Osasunbideko lanpostu ezberdinetan euskararen beharra zehazten du

**Garbiñe eta Elixabet**

Nafarroako Gobernuak irailaren 5ean Osasunbideko zein lanpostuetan behar den euskara jakitea zehaztu zuen. Hemendik aitzinera, eremu euskaldunean euskarak zuen merezimendua kendu egin dute. Gertaera honen aitzinean, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak euskararen aurkako eraso guziak planifikatuak daudela adierazi eta Gobernuaren jarrera salatu du. Osasunbideko langileek jendeari behar bezalako atentzioa emateko nahitanahiezkoa da bertako hizkuntzan aritzea Mankomunidadearen ustez. *«Horretarako euskara behar bezala baloratu behar da lanpostu hauek betetzeko orduan».* Foru Dekretu berri honekin euskaldunen diskriminazioa bultzatzen dela ere uste du, legez ofiziala den hizkuntza ezin delakoz administrazioan erabili. Oposaketa lehiaketa batean euskara jakiteari hagitz puntu gutti ematen dizkiotela uste du Mankomunidadeak, *«hemengo biztanle euskaldunen kopurua kontuan hartu gabe».*



ARTXIBOKOA

**Osasunbideko lanpostuetan euskara behar bezala baloratzea eskatu du Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak.**

## FLASH

### *Herriko bestak*

Bertze urte batez akautu zaizkigu herriko bestak. Bai bertakoek baita bisitariek ere, ederki pasatzeko aukera izan dute. Dantzariak, herri kirolak, pilota partiduak, kontzertua... klase guzietako ekitaldiak izan dira, guzien gustorako. Bada, egun guttiago falta dira heldu den urteko bestetarako.

### *Lesakar bat hila lan istripuan*

Abuztuaren 29ko goizean, Auzmartinkobordako teilatuan lanean ari zela, erori eta hil egin zen Francisco Javier Sadaba Sarobe «Altxafero», 51 urteko lesakar ezaguna. Erori aitzinetik, zorabioren bat izan zuela uste dute langileek. Altxaferok ez baitzuen deus hartzek ahaleginik egin.

Lanchas
· Parketak - Tarimak
· Kutxillatzea eta bernizatzeak
· Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735



ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa ✆ 948631106 BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira







ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, Betatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tlnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
Bideragarritasun planak



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

DONEZTEBE

# Sunbilla bitarteko errepidea moztuko dute zenbait egunez

## Leherketak eginen dira eta harriak bidera erortzeko arriskua dago

**ttipi-ttapa**

Abuztuko azken astean bezalaxe, irailean ere zenbait egunez N-121-A errepidea Doneztebe eta Sunbilla bitartean moztu eginen dute arratsaldeko lehen orduetan. Zehazki, irailaren 10, 12, 18, 24 eta 27an moztuko dute, eguerdiko 14:30etan hasi eta hiru ordu laurdenez ezin izanen da bertatik pasatu. Errepide mozketaren arrazoia, Zozaia-Doneztebe errepide zatiaren lanak dira, noski. Egun horietan leherketak eginen dira eta harriak eta bertzelako materialak bidera erortzeko arriskua dago. Mozketek irauten duten bitartean, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Departamenduak bertze errepide batzuk erabiltzea gomendatu du: Doneztebe eta Leitza arteko errepidea hartu eta gero A-15 autobidea hartzea edo, Baztandik, N-121-B errepidea hartzea, Dantxarinean barna.

Zozaia-Doneztebe errepide zatiaren lanak iazko maiatzean hasi ziren eta 2003. urteko maiatzean akitzea espero da. Azpiroz y Saralegi, Padenasa eta Cavosa enpresa elkartea ari da lanean, 2.904 milioiko aurrekontuarekin.




KARMELE TOLOSA

**Errepidea moztua ez dagoenean ere, auto andana ederra pilatzen zen autoen harat-honata arautzen duten semaforoetan.**

SUNBILLA

# Giro onean joan dira Santiburtzioak

**Jaione eta Alba**

Giro ederrean pasatu ziren aurten ere Santiburtzio bestak. Egitarauak ez zuen berrikuntzarik ekarri baina su artifizialetan, goitibeheretan, aitzur jaurtiketan, koadrilen bazkarian edo plater tiraketan jendeugari bildu zen. Bestei hasiera emateko suziria Herriko Etxetik bota zuen Joxe Manuel Zugarramurdi zinegotziak. Udaletxeko obra akitua ez izan arren, balkoi berria estreinatu zuen udal korporazioak. Egun handian omenaldi hunkigarria eskaini zion Udalak Juan Arretxeari, 30 urte baino gehiagoz albintea izandakoari.

Bertzalde, aipatu beharra da Josporroako kurban berriro ere istripu larria gertatu zela abuztuaren 24an. Murtziako kamioi gidaria hilik suertatu zen.

KIROLA

### *Goi mailako eskubaloia ikusgai aste hondar honetan kiroldegian*

Eskubaloia gogoko dutenek, goi mailako ikuskizuna esku-eskura izanen dute aste hondar honetan Doneztebeko udal kiroldegian. Irailaren 7an eta 8an, ortziralean eta larunbatean, Jube Memoriala jokatuko da eta goi mailako lau talde ariko dira: Portland San Antonio gaur egungo Europako txapelduna, Caja Cantabria, Anaitasuna eta Toulouse.

Joan den asteburuan, berriz, Errekaren 25. urteurreneko ekitaldien barnean, areto-futbol torneoa jokatu zen. Baztan-Bidasoako txapelketako finalistak izan ziren Goizalde eta Titi Ostatuekin batera, Urrezko Mailan ari den MRA-Xota eta Superfos taldeak aritu ziren.




ARTXIBOKOA

**Richard Richardson, Munduko eskubaloi jokalari onenetako bat ikusteko modua izanen da aste hondar honetan udal kiroldegian.**

ERATSUN

### *Ur-hornidura sarea moldatu nahi du Udalak*

Azken hilabeteetako idortearen ondorioz, urhornidura arazoak dituzte Eratsunen. Sarea orain dela 5-6 urte berritu zen, baina Jose Luis Eskudero alkateak dioenez, *«lana ez zen ongi egin eta ur asko galtzen da»*. Sarea eta 50 urte dituen depositoa berritzeko dirulaguntza behar dute, baina hori lortzea zaila dela onartu du alkateak.

ELGORRIAGA

# Mikologia Hilabetea antolatu du Onddo eta Zizen Kofradiak

## Nafarroako Gobernuko Herrilan sailak aurkeztu du

**ttipi-ttapa**

Joan den igandean Onddoen bidean barna egindako ibilbidearekin eta eskulanen erakusketarekin hasi da Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako Mikologia Hilabetea. Hemendik aitzin ere hainbat ekitaldi eginen dira, onddo eta zizen mundua ezagutaraztekо helburuarekin.

Igande honetan, irailak 9, bi lehiaketa antolatu dira. Alde batetik, argazkizaleendako III. Argazki rallya abiatuko da goizeko 9etan. Bertzetik, herrikoendako lore lehiaketa eginen da lehen urtez. Bietan ere sari kozkorrak banatuko dira.

Irailaren 23an, lehendabiziko aldiz herri lasterketa eginen da goizeko 10etatik aitzinera, Onddoen Bidean barna eta hemen ere sariak banatuko dira.

Irailaren 30ean, goizeko 9etan Onddo eta Zizen IV. Arotzarena Memoriala eginen da. Eguerdi aldera, berriz, kofradiako kideek prestatutako onddo kaxulen lehiaketa eginen da. Ondoren, onddoak jateko modua izanen da.

Urriaren 6an, argazki rallyan ateratako argazkien erakusketa zabalduko da eta sariak banatuko dira. Egun berean, Onddo Kaxulen laugarren lehiaketa eginen da, Juanito Mariezkurrena zenaren omenez. Lehiaketa honetan parte hartzeko gonbidapena beharrezkoa da. Biharamonean, Kofradiaren egun handia izanen da. Kofradien arteko besta eginen da, Onddo eta Zizen kofradiako kide berriak izendatuko dira eta Meza eta enkanteak ere izanen dira. Egun guzietan Doneztebeko Beti-Alai txaranga gazteak eta Doneztebeko txistulariek joko dute.



ARTXIBOKOA

**Igande honetan hirugarren azgazki rallya eginen da, Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako Mikologia Astearen barnean. Egun berean, herrikoendako lore lehiaketa eginen da lehen urtez. Argazkian, Kofradiaren bertze ekitaldi bat.**

### Erakusketa aunitz Kultur Etxean

Mikologia Astearekin lotuta, urriaren 6tik 7ra Alvaro Matxinbarrena eskultorearen lanak ikusgai izanen dira Elgorriagako Kultur Etxean. Ez da hau izan, ordea, Kultur Etxeak jaso duen erakusketa bakarra. Abuztuaren 1etik 14ra Blanca Esther eta Nieves Saezen lanak izan ziren ikusgai eta abuztuaren 16tik 31a arte Jon Otazurenak. Irailaren 1etik urriaren 8ra, berriz, Jose Willian Tenecelaren lanak ikusteko modua izanen da igandero, goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara.

Uztailaren 15ean hasi eta urriaren 15a bitarte, azkenik, Elgorriagako Martin Ibarraren arotz lanak ikusteko modua izanen da. Lan egunetan arratsaldeko 5etatik 8etara zabalduko dira ateak eta besta egunetan, goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara.

### II. Kongresu Mikologikoa Bertizen urriaren 12tik 14ra

Bertzalde, Onddo eta Zizen Kofradiak bigarreb urtez antolatutako Kongreso Mikologikoa urriaren 12tik 14ra gauzatuko da Bertizko Jaurerrian. Bertan parte hartzeko plazak mugatuak direnez, abudo izen ematea komeni da. Horretarako eta informazio gehiago biltzeko telefono hauetara deitzen ahal da: 948 450376 / 948 450454 / 646 425953.

ADINEKOAK

# Arkupeak elkarteak bidaiak antolatu ditu datozen hilabetetarako

Iraila akabaila eta urria haseran, egun batzuk Mediterraneo inguruan igarotzeko aukera emanen die Arkupeak erretiratuen elkarteak bere bazkideei. Zehazki, irailaren 29tik urriaren 6ra Salou ondoko La Pineda ingurura joateko aukera izanen dute. San Migel egun berean aterako dira eta Zaragozan gelditukо dira. Pilarika bisitatu ondotik, bazkaldu eginen dute. Egun berean ailegatuko dira La Pinedara eta Hotel D'Or-en aterpetuko dira. Han dauden bitartean, autobusean ateraldiak eginen dituzte, baina beti hotelera itzuliz. Honela, hondartzan gelditu nahi dutenek ere horretarako aukera izanen dute. Bidaiaren prezio osoa 37.000 pezetakoa da logela bikoitzean. Bakarkakoa hartuz gero, eguneko 2.000 pezeta igoko da, 49.000 denetara. Ordainketa irailaren 7an eginen da Arkupeak elkarteko bulegoan edo herrietako ordezkariei.

Bertzalde, irailaren 29an egun bateko txangoa eginen da Lezoko Gurutze Saindura. Meza aditu ondotik, Hondarribiako Ardora jatetxean bazkalduko dute, hondartza ondoan. Egun osoaren prezioa 3.500 pezetakoa da.

MALERREKA

# Oizko bestak irailaren 7tik 11ra

## Mindegia eta Larretxearen arteko aizkora apostua igandean

**20:00etan** Altxaferoak. Txistulariek herrian barna ibiliko dira. **21:00etatik aitzina** Herriko Ostatuan zopak izanen dira. **00:30etatik 4:30etara** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

### Larunbata 8

**11:00etan** herriko trikitilariak herrian barna itzulia emanen dute. **11:30etan** Meza Nagusia. Ondotik hamaiketakoa herriko ostatuan. **17:30etan** herritarren artean partidoa, helduak gazteen aurka arituko dira. **20:30etatik 22:30etara** eta **00:30etatik 4:30etara** LAIOTZ taldea. Ondoren "zingarra jatea" elkartean.

### Igandea 9

**11:00etan** herriko trikitilariek itzulia emanen dute. **12:30etan** Aizkora apostua: Mindegia Larretxearen aurka. **16:30etan** Laxoa partidoa, gaztetxoen artean. **18:00etan** Pilota partidoak afizionatuen artean. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JOXE ANJELekin. Ondoren , zingarra jatea, herriko elkartean.

### Astelehena 10

**11:00etan** herriko trikitilarien itzulia. **11:00etan** Mus txapelketa elkartean. **17:00etan** Haurrendako jokoak herriko plazan. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. Ondoren, Zingarra jatea elkartean.

### Asteartea 11

**11:00etan** herriko trikitilarien itzulia. **12:00etan** Herri Kirolak: Antonio Latasa eta Agite, Aierbe eta Arria II.ren aurka. **14:00etan** Herri bazkaria, Xebaxtian LIZASO eta Jexux Mari IRAZU bertsolariekin. **17:00etan** Toka eta Soka-tira, herritarren artean. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia, JOXE ANJEL akordeolariarekin. Besteei bukaera emateko, Kalejira herrian barna eta GAIXOA NI.





NEKANE ARIZTEGI UTZIAK

**1998ko festetako herri bazkaria eta iazko festetan, gazteak.**


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab…

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

OIZKO
OSTATUA • JATETXEA
✆ 948 451 951
Inaugurazioa irailaren 7an
Baztan zopa emanen da
40 lagunendako jatetxea
5 logela bikoitza bainuarekin
Egongela

## MALERREKA

# Eratsungo Santa Leokadia festak irailaren 8tik 11ra ospatuko dira

### Mikel Mindegiari omenaldia eskainiko zaio, Arrospideren kontrako saioaren ondotik



Jose Luis Eskudero utzia

**Duela bi urtetako Eratsungo festetan, Nafarroako herriz herri txapelketaren finala jokatu zen. Argazkian, proba konbinatua.**

### Larunbata 8 Santa Leokadia Eguna

**9:00etan** txupinazoa eta ondoren txistulariek herrian barna itzulia emanen dute, festari hasiera emanez. **12:00etan** Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren ohorez. **17:30etan** aizkora apustua: Mindegia-Arrospide. Eratsungo herriaren aldetik omenaldia egingo zaio Mindegiari bere kirol jardueragatik. **18:30etan** pilota partiduak. Alebinak: Beñat eta Iñaki, Gaizka eta Enekoren kontra. Gazteak: Julen Retegi eta Ibarra, Larralde eta Arraztoare kontra. **20:00etatik 22:00etara** Diego Quevedo y su Mariachi taldearen saioa. **00:30etatik 4:30etara** dantzaldia SCANA taldearekin.

### Igandea 9

**11:00etan** herriko mus txapelketa, honako sari hauekin: bikote txapeldunak bildots bana; bigarrenak bina txuleta eta bina botil ardo; hirugarrenak bina txuleta. **18:00etan** pilota partiduak. Infantilak: Urrutia eta Arregi, Iraola eta Ezkurraren kontra. Afizionatuak: Bengoetxea eta Eskudero, Arraztoa eta Huarteren kontra. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

### Astelehena 10

**Atsaldean** Umeen Parkea, karts eta gaztelu haizatuekin. **18:00etan** pilota partiduak. Alebinak: Beñat eta Eneko, Gaizka eta Iñakiren kontra. Afizionatuak: Cerezo eta Iriarte, Zubieta eta Elizondoren kontra. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

### Asteartea 11

**14:00etan** herro bazkaria Eguzkitze eta Peñagarikano bertsolariekin. **18:00etan** pilota partiduak. Gazteak: Julen Retegi eta Arraztoa, Castillo eta Aranburuen kontra. Afizionatuak: Arraztoa eta Eskudero, Azkune eta Milikuaren kontra. **Arratsaldez eta gauez**, festari bukaera emanez, dantzaldia MO-

KULTURKARI

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 948 63 11 88



MARTIKO

*Gure baserrietako produktuak*

✆ 948 625016 • Fax 948 625046
Alkaaga Industrialdea • BERA

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.
✆ 900 704704

FUNERARIA ZERBITZUAK

LESAKA-DONEZTEBE

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara trasladoak

Tfnoa 948 637404 ..................... LESAKA
Tfnoa 948 450475 ............. DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971 ..................... BAZTAN

GOIZUETA

# Artikutzako Sanaustinarekin bukatu ziren aurten herriko festak

## Herriz Herri Informatika salatzeko asmoa du ikasle talde batek



ESTEBAN AROTZENA
**Sanaustin eguna Artikutzara egunpasa joateko aitzaki ederra da.**

**Esteban AROTZENA**

Aurten ere paregabekoak izan diren Amabirjin festak abuztuaren 19an bukatu ondoren, abuztuaren 28ko Artikutzako Sanaustinak bukaera ederra eman zien herriko jaien udako zikloari.

Aspaldiko ohiturak agintzen duen bezala, goizeko lehen ordurako ikaragarrizko mugimendua somatzen zen herrian. Oinez edo kotxez, bakoitzak nahi zuen bezala, hanka hankari kentzeko gauza den guzia Artikutzan zegoen eguerdirako. Egun honek aukera ederra eskaintzen du gainera Goizuetarekin mugatzen duten hainbat herritako jendearekin harremanak estutzeko, ehundaka izaten baitira gure herriko auzo horretara agertzen diren aranztar, lesakar edo oiartzuarrak.

### *Informatikaren iruzurra?*

Joan den ekainean, «Herriz herri informatika» enpresaren eskutik informatika ikastaro baten hasitako zazpi herritar, enpresa gipuzkoar honek iruzurra egin ote dienaren beldur dira. 42.000 pezetako matrikula ordaindu ondoren hasi ziren klaseak, Udalak berak utzitako lokalean gainera. Eskainitako programazioaren arabera, ekaina eta uztaila guzian iraun behar zuen ikastaroak, baina azken hilabete horretan ez zen irakaslerik azaldu.

Enpresaren ustezko telefono zenbakian, berriz, ez dakite deus Herriz Herri Informatikaz. Aisa ulertu litekeen bezala, kaltetuak arront haserre daude, eta irailaren lehen egun hauetan ez baldin bada irakaslerik agertzen Ertzaintzaren aurrean salaketa sartzeko asmoa ere azaldu zigun hauetako batek.

ARESO

# Herriko taldea Europako lur gaineko sokatira txapelketan

## Irailaren 20tik 23ra jokatuko dute Suitzan 560 kilotan



GARA
**Ederki sufrituta, 560 kiloko Euskal Herriko txapela lortu zuen Aresok Santiago egunean Azpeitian.**

**Juana Mari SAIZAR**

Santiago egunean, Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketa irabazi zuen herriko taldeak Azpeitian, 560 kiloko kategorian. Goma gainean urte dexente badituzte ere, lehen aldia zen lur gainean saiatzen zirela eta txapela irabazi. Azken saio horretara Goiherrirekin berdinduak ailegatu ziren, baina Azpeitian aresoarrak gailendu ziren. 600 kilotan hirugarren izan ziren.

Orain, irailaren 20tik 23ra Suitzan jokatuko den Europako txapelketan Areso izanen da Euskal Herriko ordezkaria 560 kilotan.

### *Antonio Alustiza eta Jai irabazle*

Antonio Alustiza herriko artzainak eta Jai txakurrak irabazi dute aurten ere Huarte-Arakilgo Artzain txakur lehiaketa famatua. Laugarren txapela da Antoniorentzat: 1993an Argirekin irabazi zuen; 1996an, iaz eta aurten Jairekin. Huarten, hiru frogak gainditu zituen txakur bakarra izan zen Jai. Txapelak aukera emango die Antonio eta Jairi Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko.

### *Larrekobordara doan pista konponduko dute*

Larrekobordara doan pista konpondu behar dute. Hortik ez dago etxebizitzarik, baina hor dagoen pinudia ateratzeko derrigorrezkoa da pista konpontzea.

LEITZA

# Uda badoakigula, aizu!



ARGAZKIAK: ANTTON ERKIZIA

**Uda llaburra da gure herrian eta bete-betean aprobetxatu beharra dago: uretan, eguzkitan, itzalean.**

Antton ERKIZIA

Sanferminetako eguna laburtzen hasten dela esaten duenik bada norbait. Beti ere, Santiburtziotarako dexente mozten du eguna. Eta Santiburtzioak joan ziren aspalditxo (ederki aski joanak, alajaina, norbaitek istiluak eta zalapartak iragarriak bazituen ere).

Pesta ondoren, lau zakur eta hiru katu gelditzen gara, etxe-guardian edo. Gainerakoak, gehienak, bakazio eta barkazio giroan. Eta horiek ere etxeratuak ditugu

Aurtengo uda, badoa, nobedade haundirik gabe batezbeste baina bakoitzak daki bere etxeko berri.

Bero zakarrak egin ditu, eguraldi fin haundirik ez; lainoa kasik egunoro Iguzkizko muñoan behera, lainoa baina euririk ez, lehor.

Gu beti negarrez.

"Kosetxa" biltzen hasia da jendea. Patata polita ateratzen omen da, baina usteltzen hasiko delakoaren beldur...

Zer nahi duzu kontatzea bada, horixe da herri arrunta bateko bizitza arruntaren koplak

Ongi joanak ongi kontatuak.

# 450 bat ikaslek hasiko dute ikasturtea

### Aurten ordutegia pittin bat aldatzen da Lehen Hezkuntzan

Uda badoala eta udazkenaren testigu edo, eskolak hasten dira. Irailaren 6an hasiko dute ikasurtea udal haurtzaindegi (25 haur) eta Haur eta lehen Hezkuntzakoek (204 neska-mutiko). Aurten gainera berrikuntza ttiki batzuk badauela esan digu Imanol Arozarena, LHko zuzendariak: *«Goizez 9etan hasi baina ordu batetan bukatu, eta atsaldez berriz 3etan hasiko gara, lau terdiak arte. Honela, hobeto aprobetxatuz eguna, lehengo 24 klasetatik 28 klase-ordu ematera pasako gara»*. Beste gauza "berria": aurtendik ingelesa ematen 4 urtetan hasten direla.

DBHn beranduxeago hastekoak dira: irailaren 14an eta 17an.



ANTTON ERKIZIA

**Imanol Arotzarena, eskolaurre eta Lehen Hezkuntzako zuzendaria.**

QUIROMASAJE
Pili Villabona Saralegui
Elbarren 36-3.B • LEITZA • ✆ 948 510694

BULDAIN
agentzia inmobiliarioa
Amazabal 27 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)
✆ 948 510334 / 649 476615

ARANO

# Aranotik Leitzara ibilaldia

Kontxi KLABER

Abuztuaren 11n ekin zioten 30 bat lagunek bost ordu inguruko bideari. Goizeko 8ak inguruan herritik atera eta Mandoegi azpira iritsi zirenean gosaldu zuten. Mendia ezkerretara utzi eta bidea jarraituz eguerdirako Leitzan ziren. Bertan bazkaldu eta arratsaldean kotxetan bueltatu ziren. Lehenengo urteetan Goizuetako autobusa joaten zen jendearen bila. Ohitura hau aspaldikoa da, pasa dira 22 edo 23 urte lehenengo bidaia egin zenetik eta geroztik, jende gehiago edo gutxiago izan, mantentzen da. Aurreneko urtean Leitzako bidaiatik aparte Artikutzakoa egin zen San Agustin egun batean. Hiru bat orduko bidea oso polita baina arrisku pixka bat ere bazeukan. Geroztik ez da antolatu bidai hau.



**Duela urte batzuk Aranoko gaztetxoek Leitzara egindako ibilaldiko argazkia, Leitzako Harri Beltzan.**

## BAZTAN



MARI KRUZ BURGETE UTZIA

**Goitian, ezkerretik eskuinera: Palmira Almandoz, Javi Ameztoi, Nazario Goñi, Petra Burgete, Esteban Ugarte, Mari Kruz Burgete, Manuel Goñi (Xuko), Pilar Barrenetxe, Patxi Ameztoi, Pepe, Alejandro Galarregi, Mertxe, Sagrario Bikondoa. Beheitian; Salva Sobrino, Juan Pello Galarregi, Kontxi Ameztoi, Migel Mari, ?, MªJesus Torres, Pedro Alberro, Inmaculada Sagastibeltza, Martintxo Larrea, Rosa Mari Irungarai eta Maria Jesus Etxenike.**

# Elbeteko Gurutze Saindua irailaren 13tik 17ra

### Labrit abeslariak igandean kantaldia eskainiko du

**Ortzegune 13**

**18:00etan** Suziria. **20:30etan** Baztan Zopak ostatuan (Txartela erosi). **00:00etan** Txopo goratzea. Ondotik dantzaldia FRANCISCOrekin.

**Ortzilerie 14**

**11:00etan** Meza nausie. **13:00etan** Hameketakoa ostatuan. **18:00etan** GORRITI eta bere animaliak. **20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 03:00etara** Dantzaldia FRANCISCOrekin **22:00etan** Mutil dantzak.

**Larunbata 15**

**12:00-14:00** Gaztelu puzgarriak eta karts. **14:00etan** Gazteen bazkaria Oñaskan. (Izena eman) **16:00etatik 19:00etara** Gaztelu puzgarriak eta karts. **19:00etan** Txokolate jatea eta japoniar bonbak. **20:00etatik 22:00etara eta 0:30etatik 4:00etara** Dantzaldia. **22:00etan** Mutil dantzak.

**Igandea 16**

**12:00etan** Meza Nausie. **17:30etan** Bapateko mus txapelketa (puntuala!). Ondotik makiltira desafioa. **20:00etan** Kantaldia LABRIT abeslariarekin (Bere diska berria aurkeztuko du). **22:00etan** Mutil dantzak.

**Astelehena 17**

**14:00etan** Herri bazkaria Karrikatxarren (Izena eman behar da aitzinetik). FRANCISCOK bestaalaituko du. Gogoa dutenekin afaria eginen da.




Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

## FLASH

### *Elizondoko juradoak museo etnografiko bat eskatu du*

Ana Mari Marin, Elizondoko alkate juradoak, herrian museo etnografiko bat egitea proposatu du. Elizondoko etxe bat erosi nahiko lukete egoitza izan dadin eta bertan, gure arbasoen ohitura, tresna eta bertze hainbertze gauza bilduko lirateke. Ana Marinek duen ametsetako bat da, Elizondon berea izanen zen museoa eraikitzea.

### *Labrit abeslaria Elbeten*

Labrit Usurbilgo neska gaztea bere bigarren diska grabatzen ari da egunotan. Euskal Herrian lehenengo aldiz Elbeten abestuko ditu abesti berriak irailaren 16an, igandean, herriko plazan arratsaldeko 8etan eginen den kantaldian.

### *Uharte Arakilgo saridunak*

Abuztuaren 26an Uharte Arakilen artzai eguna ospatu zen. Baztandarrek zenbait sari eraman zituzten sariketa ezberdinetan. Artzai zakurrei dagokienez Oronoz Mugairiko Jorge Oteizak eta "Jai II" xakurrak bigarren saria lortu zuten. Lekarozko Pedro Mari Oskarizek eta "Zara"k laugarren postua lortu zuten. Seigarren postua Jorge Oteizak eta "Labri"k lortu zuten. Gasna lehiaketan Arizkungo Baztan Gasnategiak bigarren saria lortu zuen. Gartzaingo Federiko Etxenikek ahari mutur beltzetan lehenengo saria eta bildots beltzetan 4. saria lortu zuen. Pedro Bengoetxeak ere 2 sari izan zituen.

BAZTAN

# Udalak 2001. urteko aurrekontua onartu du

## Denetara 1.700 milioi baino gehiago gastatzea aurreikusi da

Rakel GOÑI

EAren aldeko sei boto eta UPN eta EHren abstentzioekin, Baztango Udalak 2001.urteko aurrekontua onartu du. 1.708 milioi gastatuko dira eta Bailaran egingo diren inbertsioetara dirutzarik handiena zuzenduko da, denetara mila milioi. Honekin batera Baztango Ikastola (64.425.242 pezeta) eta Elizondon dagoen Frantzisko Xabier Zaharretxearen (204.789.238 pezeta) aurrekontuak onartu dira. Oposizioko taldeek aurrekontuak lehenago onartzea eskatu zuten zenbait gaiek garrantzia galdu ez dezaten.



JUANJO ATXAK UTZIA

**Baztanek Euskal Herriko Herri Arteko Pilota Txapelketa irabazi zuen uztailaren 25ean. Txaruta taldeko pilotariek hiru partiduetatik bi irabazi zizkioten Elorrioko taldeari. Denboraldia borobildu duen garaipena izan da hau. Zorionak beraz pilotari eta entrenatzaileei eta segi lanean ziur laster txapela gehiago iritsiko direlakotz.**

### *Asier Larretxearen poemak Arizkunenean*

Asier Larretxea arraiozko gazteak Arizkunenea kultur etxean lehendabiziko solairuan, bere poemak erakutsiko ditu irailaren 8tik 22ra. «Zabortegiko poemak» izenburupean, irailaren 8an bertan erakusketaren inaugurazioa eginen da, arratsaldeko zazpietan, olerkien errezitaldiarekin. Era berean irudi eta txalapartarien laguntza izanen du kulturetxeko ganbaran. Poemak hiru taldetan banatuko dira ausentzia, maitasuna eta iluneria gaiak abiapuntutzat hartuta, sentimendu handiko lana da Arizkunenean aurkeztuko dena. Asier Larretxeak eginen duen bigarren erakusketa izanen da, poema berriak bilduko dituena. Larretxearen lana Euskal Herrian pixkanaka ezagutzen daie eta inguruko abeslariek olerkiak eskatu dizkiote abestiak egiteko.

FLASH

### *Errepideak moldatzeko proiektuak*

Nafarroako Gobernuak Baztango zenbait errepidetako zoladura egokitu eta sendotzeko obren proiektua onartu du, eta lanak egiteko lehiaketa deia egin du. Errepide hauek N-121-B (Arraiozko saihesbidea eta zeharbideak izan ezik), NA-4453 (Orabidea), NA-4405 (Oharriz), NA-4404 (Irurita-Estazioa), NA- 4403 (Lekaroz), NA-4445 (Arrazkazan), NA-4457 (Azpilkueta) eta NA-2600 (Erratzu-Izpegi) izanen dira. Kontrataren aurrekontua: 552.947.482 pezetakoa da (3.323.281,30 euro) eta egiteko epea 18 hilabetetakoa izanen da.

### *Lekarozko pisten egoera*

Aurten Lekarozko sagardotegiraino daien pista berritu egin badute ere, oraindik gelditzen dira zenbait kilometro moldatu gabe. Hain zuzen ere, alkatearen baserritik pasatzen den bidea egoera kaxkarrean dago, eta aspalditik eskatu da kopontzea. Badirudi ordea esperatu beharko dutela, Balleko Etxeak behin eta berriz ezetza ematen ari delakoz.

SPARK
English Academy Center
Zure ingelesa hobetu edo ikasi nahi baduzu ez itxaron gehiago
Matrikulazio epea: irailak 28 baino lehen
✆ 948 580 175 · 636 858 850
Paularena, 35-1A ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ✆ 948 580373 • 608 776176

TTITTI OSTATUA
errentan eman nahi da
✆ 948-450271
Doneztebe

AZKAIN

# Arrakasta haundia Azkaingo bestentzat

Azken 10-12 urtetako jendetzarik handiena izan da

Imitza, Angela eta Eneko

Duela aspaldi ez dehinoako bestarik izan izanen. Plaza eta osteak gau guziz betedira 4 egunez. Adin guzietakoak hor ziren. Aurten errebestarik ez urtenan 5 egun segidan: Andre dena Magunetik Igandearaino. Beste herri batzu agertu ira antolaketaren aldetik eta ikusgarriak desberdinak izan dira. Momentu eder ainitz izan ira. Patxi Perez eta beste taldeak plaza betetu zituzten dantza arrotz batzuen erakasteko. Le Petit Théâtre de Pain taldearen ikusgarria zintzur bustitzeko tenorean, Uramaren 4 abotsak, Hatsen konzertua, igandeko bazkarian bildu ziren 350 pertsonak.

Jérôme Laduche, besta taldeko lehendakariaren ustez, helburu nagusia lortu da. BEre ustetan, 10 edo 12 urtetan ez zela hainbertze jende ez zela ikusten Azkaingo bestetan. Horren sekretuari buruz galdetzerakoan, Laduchek hau dio: *«Orai arte 3 egunez ziren bestak eta aste bat berantago errebestak. Aurten bortz egunak eraman ditugu segidan eta hori ainitz gustatu zaio jendeari. Musikari taldeak ere biziki desberdinak ziren, denetarik bazen, bakotxak bere eguna atxeman zezan. Behin gustukoa duen musika entzun eta maiz jendea berotzen da berriz etortzeko ondoko egunetan.*

*Manejak ere baziren eta Buraso ainitz etorria zen haurren ekartzerat. Ondotik ainitz gelditu dire trago baten hartzeko»*. Heldu den urteari begira, *«hainbertze jende biltzeko, enseatuko gira programa on baten eraikitzea, denentzat zerbaiten atxematea, 4 arrats baldin badira 4 gai desberdin hautatuz»*.





### *Asteburu osoa Gaztetxearen alde*

Aurten ere GEMuKu elkarteak asteburu oso bat antolatuko du Gaztetxearen eraikitzearen alde, Irailaren 21 eta 22an. Bertze urteetan ez bezala ikusgarriak Ortziralean hasiko dira Antzerki emanaldi batekin, Le Petit Théâtre de Pain taldeak emanik. Antzerkilari hauek ezagunak izaten hasten dira Azkainen bainan oraikoan ikusagarri erraldoia eskainiko dute Erromano Zubian ( kanpoan ). Antzerki berezi huntan apaingailuak hain haundiak dira nun ikuslea kasik eszenatokiaren gainean den.

Biharamunean, Kiroletan, bazkari haundi eta merke bat prestatua izanen da. Arratsaldean Inguruetako herrietako gazteen arteko futbol xapelketa . Iluntzean kontzertu haundia hasiko da Euskal Herritik eta Parisetik etorri talde batzuekin: Mahamudra, Enhancer, Eraso eta Bigira. Arratsaldean, bertze urteetan bezala laguntzaile ainitz beharko dira aintzinetik dena muntatzeko, ostatuan lan egiteko edo garbiketarako.



Le Petit Théâtre de Pain taldea

## KIROLA

### *Errugbi Eskola Nafarroan*

Joan den ekainean errugbi eskolako haurrek ateraldi batekin finitu dute urtea. Aurten Lizarraraino joan dira asteburua pasatzerat. Han 60 bat haur ziren (6 eta 13 urte arteko haurra). Kirol bereziak praktikatu dituzte: kanoe, eskalada eta elastika saltoa, udako bakantzak sensazio azkar batzuekin hasteko. Bainan laster sasoin berria hasiko da. Lehen entrenamendua eta izen emaiteak Irailaren 15an eginen dira Kiroletan arratsaldeko 2etan. 6 eta 13 urte arteko adina durten haur guzier idekia da Azkaingo errugbi eskola.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAZKENEKO ARROPAK
Jertseak, gonak, galtzak, trajeak, soinekoak eta osagarriak

Harretche
Artisan
GOZOTEGIA OKINDEGIA
S.A.R.L. ETCHE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67

SOULE
Hileta artea
✆ 948 453444•629 659583
ARIZKUN

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

ttipi ttapa
✆ 948 63 11 88

## SARA

# Ramuntxo Lamothek marka berria ezarri du Kontrabandisten Lasterketan

40 minutu eta 2 segundutan irabazi zuen agorrilaren 19ko proba







ARGAZKIAK: LEGARRA

**Goitian, XXXIX. Kontrabandisten Lasterketan parte hartu zuten korrikalari guziak. Beheitian ezkerrean, Ramuntxo Lamothe irabazlea (31) eta Fernando Etxegarai bigarrena (1), ateratzeko prest. Eskuinean, Ramuntxo helmugan irabazle sartzen.**

Aña Mari eta Fred

Joan den abuztuaren 19an, 39. kontrabandisten lasterketa kurritu da. Denetan mugaz gaindiko 34 lasterkari lehiatu dira eta iaz bezala, Ramuntxo Lamothe Saratarra nagusitu da, bainan oraingoan marka guziak hautsi ditu. Alabainan, 25 urteko Saratarrak ibilbide guzia 40 minutu eta 2 segundutan egin du, bere iazko denbora (40,31), bainan ere Koxe Oronoz-ek 1988an eginiko marka historikoa gaindituz (40,26). Bigarrena ere, joan den urteko bera izan da: Fernando Etxegarai beratarra (42,55). Iñaki Lopetegi (43,07), Mixel Larzabal (43,18), Daniel Mehats (44,21), Angel Garate (44,58), Sebastian Dantras (46,24), Jesus Salazar (46,47), Didier Suertegarai (48,18) eta Batixta Telletxea (48,32) sartu dira gero. Azpimarratu behar da 7 Saratarrek parte hartu dutela eta Zugarramurdiren izenenean aritu den Maika Ariztegi izan dela parte hartu duen emazte bakarra.

Bertzalde aipatzekoa da, lehen aldikotz Sara Korrika elkarteak lasterkaldi bat antolatzen duela Sarako Besten larunbata kari. Arratsaldeko 5etan abiatuko da plazatik eta 10 kilometrotako luzetasuna izanen du. Hasi berotzen!

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
• Diabetia • Asma • Buruko mina • Oinen izerdia
• Larru azaleko alergia • Zitzareak • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bizkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 3-7etara. Ordua eskatu
San Marcial, 7-4 IRUN

Okindegia Jatetxea
Uxoa
• Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
• Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan



Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

SARA

# Sarako bestak buruilaren 8tik 12rat

## Sara Korrika elkarteak antolatu lasterketarekin hasiko dira

### Larunbata 8

**17:00etan** Lasterketa Sara Korrika elkarteak antolaturik eta deneri idekia. **22:30etan** kontzertua FLITTER taldearekin. **23:30etan** dantzaldia TABASCO taldearekin. Gau guzian hor izanen da Baionako Amezlariak Banda, Iparraldeko Gaiteroak.

### Igandea 9

**10:00etan** Meza Nagusia Urruñarrak Klikarekin eta Sarako Kantariekin. Gero, itzulin itzuli Marinelak Tanborradarekin eta Sara, Baigorri eta Iruñeko Gaiteroekin. **10:30etan** Luzean Errebotean: Endayarrak / Aviron Bayonnais. **16:30etan** karrikan Joaldunen Ibilaldia. Ondoren Ahate Jokoa eta gero herri kirol ikuskizuna: Sokatiran Urruña, Zuraide eta Baiona. Orga jokoa eta aizkora desafioa: Senosiain eta Jaunarena, Telletxea eta Larretxearen aurka. Arpanlariak: Arana anaiak eta Ibon Irazola. Iñaki Perurena harri altxatzaile famatua bere semearekin. **19:00etan** Aperitifa Sara eta Berako trikitilariekin. **22:00etan** Kantaldia: Niko eta Dominika ETXART. **23:30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **24:00etan** suzko zezena. Gau guzian Ezpeletako txaranga hor izanen da.

### Astelehena 10

Itzulin Itzuli Gaitero eta Txistulariekin. **10:30etan** Luzean Errebotean: Ustaritz / Goizeko. **13:30etan** Zikiro jatea Olhain ikastolak antolatua eta oihal etxeak aterpeturik. **17:30etan** esku huska trinketean: Aranburu J.F. eta Itoiz T. / De Ezkurra Patrick eta De Ezkurra Pascalen aurka. **17:30etan** dantza ikusgarria Zazpiak Bat taldearen eskutik. **18:30etan** Fandango Xapelgoa. Sara eta Berako trikitilariak. **20:00etan** aperitifa trikitilariekin. **22:30etan** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.

### Asteartea 11

Itzulin itzuli Gaitero eta Txistulariekin. **10:30etan** Luzean Errebotean: Aviron II / Luzean I. **17:30etan** Joko Garbi, lehen partida gazteekin: Sarako Izarra / Senpere. Gero, Frantziako Kopako Finala (FFPBk antolatua). **19:00etan** Mutxikoak Ezpeletako txarangarekin. **20:00etan** Los Mosquititos de Sare taldearekin Peruko musika. **20:30etan** aperitifa trikitilariekin. **22:00etan** kantaldia UNAMA taldearekin. **23:30etan** dantzaldia EZTANDA taldearekin eta suzko zezena.







**Herriko neska-mutikoak, garai ezberdinetan. Begiratu ongi eta ea gaur egungo zenbat gazte eta ez hain gazte ezagutzen dituzuen.**

### Asteazkena 12

Itzulin itzuli Gaitero eta txistulariekin. **9:00etan** Trinketeko zabaldeian Sarako Azienda Primak. **10:30etan** Pleka xoko txapelketaren finalerdiak: Inda / Olivier Arozarene. P. de Ezkurra / Bideondo. **12:00etan** finala. **17:00etan** esku huska plazan: Mariluz eta Alfaro / Idiart eta Etxebarne. **18:30etan** esku huska trinketean: P. Ibarrola eta Ph. Karrikart / P. Lafitte eta M. Martiarenaren aurka. Trinketean eta plazan bertsulariak: Ezponda, Xanpun, Alkat, Amorena eta Josetxo. Ondotik, zozketa. **22:00etan** dantzaldia, Michel Etxeberrirekin. **00:30etan** dantzaldia XITOAK taldearekin. **Gau guzian,** karriketan ibilaldia NEKA EZINAK txarangarekin.

# EZKONTZAK

**Frédéric Henri Elissalde** eta **Elizabeth Chevreau**, Senperekoak, uztailaren 7an.
**Bernard Duhalde** eta **Maider Lopez**, Senperekoak, uztailaren 14an.
**François Preux** eta **Yuana Hélène Bourdoulous**, Senperekoak, uztailaren 28an.
**Stéphane Larretxea** eta **Marie Bernadette Iriarte**, Senperen, abuztuaren 3an.
**Rafael Santiago Cervera Oliver** eta **Ana Maria Pina Esarte**, Zaragoza eta Elizondokoa, ekainaren 16an.
**Jose Maria Lertxundi Agerre** eta **Julia Chacon Martinez**, Elizondokoak, ekainaren 23an.
**Lorenzo Mortalena Oteiza** eta **Gaizkane Libano Calvo**, Elizondo eta Leioakoa, uztailaren 14ean.
**Pablo Stürzer Santin** eta **Ainhoa Mendioroz Saiz de la Maza**, Madril eta Doneztebekoa Gartzainen, uztailaren 21ean
**Diolindo Vides Olivera** eta **Sandra Sofia Alvez Nunes**, Elizondokoak, uztailaren 21ean.
**Juan Andres Lakosta Huarte** eta **Lourdez Mariezkurrena Juanena**, Ziga eta Urrozkoa, abuztuaren 18an.
**Jose Ignacio Zabala Murua** eta **Maria Izaskun Bildarraz Zabaleta**, Berrobi eta Leitzakoa, uztailaren 21ean.
**Manuel Mª Iparragirre Lukanbio** eta **Mª Mercedes Biurrarena Uitzi**, Arantza eta Lesakakoa Leitzan, uztailaren 21ean.
**Alain Balaire** eta **Sylvie Lacrouts**, Sarakoak, abuztuaren 17an.



## Severiano ALMANDOZ IRIBARREN

Urdazubin hil zen 2001eko abuztuaren 1ean, 80 urte zituela.

*Zure begien dizdira eta ezpainetako irria beti gurekin egongo dira aitatxi maitagarria.*

ETXEKOAK.

# JAIOTZAK

**Maddalen Arotzena Fresneda**, Lesakakoa, abuztuaren 18an.
**Raphaël Errandonea**, Senpere, uztailaren 4an.
**Arthur André Rémi Hurault**, Senpere, uztailaren 23an.
**Clothilde Valérie Gracia de Sola**, Senpere, abuztuaren 2an.
**Mikel Mayordomo Irigoien**, Berakoa, abuztuaren 4an.
**Naroa Zapiain Migelena**, Berakoa, abuztuaren 4an.
**Carmen Moreno Muñoz**, Berakoa, abuztuaren 14an.
**Katti Irastorza Urdaniz**, Berakoa, abuztuaren 16an.
**Leire Manterola Urrotz**, Iturengoa, uztailaren 13an.
**Enara Ariztegi Bereau**, Iturengoa, uztailaren 17an.
**Ainara Altzuri Makuso**, Iturengoa, uztailaren 28an.
**Saioa Dendarieta Elizaintzin**, Iruritakoa, ekainaren 14an.
**Melani Thais Guerrero Inga**, Gartzaingoa, ekainaren 20an.
**Antonio Roqué Aguilera**, Elizondokoa, ekainaren 26an.
**Garazi Iriarte Goienetxe**, Arizkungoa, ekainaren 28an.
**Miren Gonzalez Galarregi**, Elizondokoa, uztailaren 9an.
**Imanol Burgete Goienetxe**, Elizondokoa, uztailaren 9an.
**Hasier Plaza Martinez**, Lekarozkoa, uztailaren 14ean.
**Gilen Quertier Amiano**, Elizondokoa, uztailaren 18an.
**Jaime Urrutia Iñarrea**, Elizondokoa, uztailaren 1ean.
**Xabier Erce Atxa**, Elizondokoa, uztailaren 24ean.
**Leire Barriola Goñi**, Gartzaingoa, abuztuaren 10ean.
**Andrea Amorena Arteaga**, Elizondokoa, abuztuaren 15ean.
**Maialen Anso Dendarieta**, Elizondokoa, abuztuaren 2an.
**Julene Etxeberri Pacheco**, Sarakoa, abuztuaren 18an.
**Florent Berhau**, Sarakoa, abuztuaren 9an.
**Aimar Larralde Jaurena**, Urdazubikoa, uztailaren 22an.
**Iraitz Lebrón Rekondo**, Leitzakoa, uztailaren 21ean.
**Joanes Fernandez Urkizu**, Leitzakoa, abuztuaren 5ean.
**Aimar Zubieta Larretxea**, Arantzakoa, uztailaren 26an.

# HERIOTZAK

**Severiano Almandoz Iribarren**, Urdazubikoa, abuztuaren 1ean, 80 urte.
**Marcelina Ziztiage Galainena**, Urdazubikoa, abuztuaren 26an, 77 urte.
**Michel Nicolas**, Senpere, ekainaren 2an.
**Pierre Camille Bastid**, Senperekoa, ekainaren 10ean.
**Georgette Eugénie Jorajuria-Borbeau**, Senperekoa, ekainaren 9an.
**Marcel Lekuona**, Senpere, ekainak 24.
**Pauline Andrée Renée Rey**, Senperekoa, uztailaren 10ean.
**Juana Joséphe Pourteau-Elizondo**, Senperekoa, uztailaren 30ean.
**Lucien Henri Estrade**, Senperekoa, abuztuaren 5ean.
**Julien Maiz**, Senpere, habuztuaren 11n.
**Jesus Apeztegia Iribarren**, Berakoa, abuztuaren 10ean, 78 urte.
**Gabriela Mitxelena Lasaga**, Berakoa, abuztuaren 19an, 94 urte.
**Graciosa Iriarte Azpiroz**, Iturengoa, abuztuaren 3an, 89 urte.
**Dolores Hernandez Eleta**, Elizondon, ekainaren 19an, 90 urte.
**Indalecio Lizarraga Brun**, Arraiozkoa, uztailaren 7an, 80 urte.
**Alberto Cordoba Mendikoa**, Arizkungoa, uztailaren 13an, 73 urte.
**Francisco Garaikoetxea Arraztoa**, Arizkungoa, uztailaren 19an, 81 urte.
**Andresa Arraztoa Arrupea**, Azpilkuetakoa, uztailaren 20an, 77 urte.
**Julian Irigoien Arratxea**, Erratzukoa, uztailaren 23an, 84 urte.
**Mª Amelia Romani Rius**, Lekarozen, uztailaren 28an, 88 urte.
**Teodora Orduna Sanz**, Elizondon, abuztuaren 4ean, 78 urte.
**Jose Leon Eseberri Eseberri**, Elizondokoa, abuztuaren 7an, 70 urte.
**Juan Fermin Muruamendiaraz Garmendia**, Elizondon, abuztuaren 12an, 69.
**Javiera Dagerre Mitxelena**, Elizondon, abuztuaren 16an, 74 urte.
**Antonio Karrikiri Garate**, Elizondokoa, abuztuaren 19an, 76 urte.
**Leona Ariztegi Arrupe**, Etxalarkoa, abuztuaren 27an, 89 urte.
**Jose Luis Danboriena Etxarte**, Etxalarkoa, abuztuaren 28an, 66 urte.
**Patxiku Agirre**, Sarakoa, abuztuaren 16an, 79 urte.
**Joxepa Iguzkiagirre Irigoien**, Igantzikoa, abuztuaren 6an, 100 urte.
**Francisco Javier Sadaba Sarobe**, Lesakakoa, abuztuaren 29an, 51 urte.

## LAXOA



Foto MENA
**Arraiozek bere bigarren txapela irabazi zuen. Doneztebe B, bikain arituta, azpitxapeldun izan zen.**

# Arraiozek irabazi du aurtengoan Baztan-Errekako laxoa txapelketa

Elizondoko finalean 9-7 irabazi zion Doneztebe B-ri

Arraiozek irabazi du Baztan-Errekako XXIII. laxoa txapelketa, abuztuaren 5ean Elizondoko pilota plazan jokatutako finalean Doneztebe B taldeari 9 eta 7 irabazi ondotik.

Partida haseran baztandarrak izan ziren nagusi eta 5-0 aitzinetik paratu ziren, doneztebarren urduritasuna aprobetxatuz. Baina doneztebarrak lekua hartu zuten plazan eta bortzna eta seina berdintzea lortu zuten. Hortik aitzinera emozioz eta ikusgarritasunez betetako partida ikusi ahal izan zen. Azkenean, 9-7 nagusitu ziren arraioztarrak. Talde txapeldunak ohiko laukotea plazaratu zuen: Saldias sakalari gisara, Mortalena numeroa eta Gamio eta Karrikaburu laurdenak. Doneztebeko taldeak, berriz, Felipe Ganboa izan zuen botarian, Olazar numeroa eta Irigoien eta Telletxea numeroekin. Finala galdu arren, talde honek eman du ezusteko handiena txapelketan, azken hamarkada honetan txapelketa gehienak irabaziak zituen Doneztebeko talde nagusia kanporatu baitzuen finalerdian. Hirugarren postua, hain zuzen, Doneztebe A taldearentzat izan zen, 9 eta 5 irabazi baitzion Irurita B taldeari.

Jende andana bildu zen Elizondoko plazan, hauen artean luzeko bertze pilota modalitateen –Balentziako pilota, Kanarietako pilota, errebotea– ordezkariak. Sari banaketan Miguel Pozueta Nafarroako Pilota Federazioko lehendakaria, Josetxo Iraundegi Nazioarteko Pilota Federazioko ordezkaria, Jesus Murgiondo Pilotarien Batzarrekoa eta Belate Elkarteko Martin Ibarra izan ziren. Txapelak, Ana Mari Marin Elizondoko alkateak paratu zituen. Ondotik, herri guzietako pilotari eta zaleekin bazkaria izan zuten Antxitonea trinketean.

**TXAPELDUNAK**

| | |
|---|---|
| 1980 | IRURITA |
| 1981 | DONEZTEBE |
| 1982 | DONEZTEBE |
| 1983 | OITZ |
| 1984 | OITZ |
| 1985 | DONEZTEBE |
| 1986 | DONEZTEBE |
| 1987 | DONEZTEBE |
| 1988 | OITZ |
| 1989 | DONEZTEBE |
| 1990 | OITZ |
| 1991 | IRURITA |
| 1992 | DONEZTEBE |
| 1993 | IRURITA |
| 1994 | DONEZTEBE |
| 1995 | DONEZTEBE |
| 1996 | DONEZTEBE |
| 1997 | DONEZTEBE |
| 1998 | DONEZTEBE |
| 1999 | ARRAIOZ |
| 2000 | DONEZTEBE |
| 2001 | ARRAIOZ |

## FLASH

### *Bingo-Londres erremonte txapelketa*

Larunbat honetan, irailak 8, jokatuko da Bingo Londres erremonte txapelketaren finala. Joan den urtean irabazle izan ondotik, Iñaki Lizasok final horretarako txartela lortua du. Bertze finalista, joan den larunbatean Ezkurrak eta Patxi Zeberiok jokatutako finalerditik atera behar zen. Ezkurrak 35-34 irabazi zion Altuna Iri, finalerdian sartzeko. Joan den urteko finalaren errebantxa ikusiko al dugu?

### *Gazteen Laxoa txapelketa*

Handien ondotik, gazteen txanda da Baztan-Errekako laxoa txapelketan. Aurten bortz taldek hartuko dute parte, bi Iruritakoak eta Arraioz, Doneztebe eta Oizko bana. Beraz, handietan noizbait txapeldun suertatu diren lau herriek aurkeztuko dute bere taldea. Talde hauetako entrenatzaileak ere laxoa jokalari bikainak dira: Joseba Urtasun eta Josu Prim arduratuko dira Irurita A eta B taldeetaz; Luis Miguel Mortalena izanen da Arraiozko arduraduna, Tiburtzio Arraztoa Doneztebekoa, eta Alberto San Miguel Oizkoa. Ligaxka sisteman jokatzen ari dira, denak denen kontra, bi itzulitan. Partidak asteazken arratsaldeko 5etan eta larunbat goizeko 11:30etan jokatzen dira. Lehen faseko azken partida irailaren 26an jokatuko da. Ondotik, lau lehendabizikoek finalerdiak jokatuko dituzte. Finala Pilarika egunean, urriaren 12an jokatuko da.




## DATUAK...

- Fernando Etxegarai kirolari beratarrak Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi zuen abuztuaren 5ean bere herrian jokatutako finalean. Euskal Herriko marka berria ezarri zuen.

- Azkeneko hiru-lau urtetan Nafarroako txapelketa irabazia du. «Euskal Herrikoan maila hagitzoz altuagoa dago, herrialde bakoitzeko bi onenak aritzen direlakoz».

- Bi aste beranduago, bigarren izan zen Sarako Kontrabandisten Lasterketan.

**Fernando ETXEGARAI** *Berako koxkor biltzailea*

# «Euskal Herriko txapelketa herrian irabaztea ikaragarri polita izan da»

Aitor AROTZENA

Joan den urtean txapeletik bi segundu eskasera gelditu zen, baina aurtengoan ez du hutsik egin Fernando Etxegarai kirolari beratarrak. Abuztuaren 5ean Beran bertan jokatutako finalean Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi eta marka berria ezarri zuen: 6 minutu eta 12 segundu behar izan zituen 50 koxkorrak biltzeko. *«Finala herrian izanda, izugarrizko ilusioa nuen txapela janzteko. Iaz, eztia mingainean nuela gelditu nintzen, baina aurten gogor prestatu naiz. Beran irabaztea ikaragarri polita izan da, frontoi osoa niri animatzen. Hagitz berezia izan da, haseran urduri xamar nintzen, baina azkenean ongi atera da eta kontent nago».*

Aspaldian ari da Fernando kirolean, batez ere atletismo probetan. 1990. hamarkada haseran, Berako taldea Nafarroako sokatira eta proba konbinatu txapelketetan parte hartu zuenean hasi zen koxkor biltzen. Geroztik, bi probak tartekatzen ditu. Erraterako, Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi eta bi astetara, bigarren izan zen Sarako Kontrabandisten Lasterketan, Ramuntxo Lamothe saratarraren gibeletik, iaz bezalaxe.

> Koxkorrendako serie laburrago eta azkarragoak egiten ditut. Kroserako kilometro gehiago egiten ditut eta ordu gehiago behar dira. Biak gogorrak dira.

### «Biak gogorrak dira, baina koxkor biltzea laburragoa da, kroserako ordu gehiago sartu behar dira»

Uda haseran, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Iparraldeko Jokuetan Nafarroako marka berria ezarria zuen Etxegarai Erratzun, 6 minutu eta 20 segundu, aitzinekoa bi segundutan hobetuz. Orain, zortzi segundutan jautsi du marka hori, bere sasoi puntuaren erakusgarri. Hori lan gogorraren emaitza da, beratarraren erranetan: *«Segundu batzuk dira, ez dirudi gauza handia, baina horren gibeletik ordu aunitzetako entrenamendua dago».* Koxkor biltzen aritzeko edo lasterketetarako entrenamendu ezberdinak egiten ditu. *«Kroserako egiten dudan prestakuntza ez da aski koxkor biltzen aritzeko, zerbait aldatzen da. Koxkorrendako serie laburragoak eta azkarragoak egiten ditut eta krosetarako kilometro gehiago egiten ditut, mendian eta. Biek gogorrak dira: koxkor biltzea laburragoa baina esplosiboagoa da. Kroserako kilometro eta ordu gehiago sartu behar dira».*

Herri kirolean aizkora edo sokatira kontuak izaten dira aipagai gehienetan. Koxkor biltzea eta gisako kirolak aparte xamarrean utziak direla uste du Fernandok. Dena den, Nafarroako txapelketa berriz irabazteko prestatzen ari da Berako kirolaria.

AIZKORA

# Diego Riaño leitzarrak irabazi zuen 3. mailako Nafarroako txapelketa

Santiago Olano herritarra izan zen bigarren Mendigorriako finalean

Diego Riaño Leitzako aizkolari gaztea suertatu da Nafarroako hirugarren mailako txapelketaren irabazlea. Abuztuaren 11n jokatu zen finala Mendigorrian eta Riañok 11 minutu eta 18 segundu behar izan zituen bi kanaerdiko eta bi 45 ontzako enbor mozteko. Honenbertzez, bigarren mailara igoko da heldu den denboraldian. Bigarren postua Santiago Olano leitzarrarentzat izan zen, hamaika segundura. Hirugarren postua Etxarri Aranazko Mikel Erdoziak erdietsi zuen, 12 minutu eta 9 segunduko denborarekin. Laugarren posturako lehia estua izan zen eta azkenean Joxe Mari Mikelarena iturendarrak lortu zuen (13' 19"), Josetxo Telletxea arraioztarrak baino segundu bat guttiago. Jon Rekondo leitzarrak 15 minutu eta 8 segundu behar izan zituen lana akitzeko.



ARTXIBOKOA
**Diego Riaño eta Santiago Olano aizkolari leitzarrak, Nafarroako hirugarren mailako txapeldun eta azpitxapelduna.**

Bertzalde, Beran abuztuaren 5ean jokatutako 2. mailako txapelketan Etxarri Aranazko Juanjo Erdozia gailendu zen, Manolo Kañamares, Aitor Senosiain, Jaime Gorriti eta Esteban Pikabea gibelean utzita. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko enborra moztu zituzten.

# Mikel Mindegia gabe abiatu da lehen mailako txapelketa

Loiartek ere ez du parte hartuko

Mikel Mindegia azken txapelduna eta Jose Antonio Loiarte gabe abiatu da aurten Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketa. Mindegia beteranoak txapelketa gehiagotan parte ez hartzeko erabakia hartua du eta aurten bere hutsunea lehen aldiz nabarituko da txapelketa nagusian. Loiartek bigarren mailako txapelketa aisa irabazi zuen iaz Igantzin, baino aurten ez da lehen mailan lehiatuko.

Honela, bederatzi aizkolari aritu ziren abuztuaren 25ean Lakuntzan, finalerako bortz txartelen bila. Kanporaketa horren ondorioz, Floren Nazabal, Donato Larretxea, Juan Barberena, Daniel Vicente eta Felix Etxeberria izanen dira urrian Etxarri-Aranatzen txapelaren bila ariko direnak.

Lakuntzan Nazabalek egin zuen denborarik onena (12'41") eta finala herrian jokatuko dela kontuan hartuz, Mindegiak utzitako txapela janzteko faborito nagusia izanen da. Larretxeak 22 segundu gehiago behar izan zituen.



ARTXIBOKOA
**Honelako irudirik ez da aurten ikusiko.**

FLASH

### *Juan Carlos Garro*

Abuztuaren 19an burutu zen Alemaniako Sankt Welden herrian Europako mendi bizikleta txapelketa. Juan Carlos Garro beratarrak proba ona egin zuen eta bederatzigarren postuan akautu zuen, zortzigarrenaren denbora berean. Munduko txapelketan parte hartzeko aukeratu dute Garro.

### *Jon Bru irabazle Laudion*

Errepideko txirrindularitzara pasatuz, Telco,m-Ordoki taldean ari den Jon Bru beratarrak Laudioko V. Sari Nagusian irabazi zuen abuztuaren 23an. 128 kilometro egin ondotik bakarrik ailegatu zen helmugara, Olarra taldeko Lander Euba 23 segundura zuela. Burlatako Kriteriumeko proba konbinatuan ere nagusi izan zen Bru eta Mañariako Andramari Sarian hirugarren. Orain, profesional mailan proba egiten ari da Jon Bru. Portugaleko LA Pecol taldearekin parte hartzen ari da irailaren 1etik 9ra egiten ari den Volta do Futuron.

### *Herriz herri txapelketa*

Irailaren 23an jokatuko da Elizondon Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Herriz Herri txapelketaren finala. Arraioz da eskualdeko ordezkari bakarra eta bi konbinadatan (koxkor biltzea, zakua, aizkora, korrika eta arpana biltzen duena bata eta harrijasotzea, txinga eramatea eta ingude altxatzea bertzea) finalean sartu da. Azken honetan txapela lortzeko aukera handia du.

# AGENDA egunez egun

**ZINEMA**

**BERTIZ**

**Irailaren 17tik 21era** Bertizko Turismo Partzuergoak laugarren aldiz antolatutako filme laburren lehiaketako lanak ikusgai izanen dira Berako Kultur Etxean eta Doneztebeko zineman.

**KIROLA**

**ETXALAR**

**Irailaren 9an** Usategietako Auto Igoera.

**DONEZTEBE**

**Irailaren 7 eta 8an** goi mailako eskubaloia ikusteko aukera udal kiroldegian. Jube Memorialean Portlan San Antonio, Caja Cantabria, Anaitasuna eta Toulouse lehiatuko dira.

**MIKOLOGIA HILABETEA**

**ELGORRIAGA**

**Urriaren 7a arte** Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako Mikologia Hilabetea. Xehetasunak 16. orrian.

**ERAKUSKETAK**

**ELIZONDO**

**Irailaren 8tik 22ra** Asier Larretxearen «Zabortegiko poemak» Arizkunenea kultur Etxean.

**ANTZERKIA**

**AZKAIN**

**Irailaren 21ean** Le Petit Téâtre de Pain taldearen emanaldia..

**KONTZERTUA**

**AZKAIN**

**Irailaren 22an** Mahamudra, Enhancer, Eraso eta Begira taldeak. Bi ekitaldiak Gaztetxearen alde.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Bestetako irudirik hoberenak etxeko bideoan



Uda akautzen ari zaigu, baina oraindik buruan frexko-frexko ditugu bestetako momenturik onenak. Buruan ez ezik begien bistan izateko eta hemendik urte batzuetara oroitzapen polit horiek gordeak izateko Lesakako Sanferminetako eta Berako Sanestebanetako bideoak salgai daude ohiko dendetan (Lesakako Legarra liburudenda eta Telletxea argazkidendan eta Berako Ayla eta Goiko argazkidendetan), 2.000 pezetaren truke. TTIPI-TTAPA TELEBISTAK prestatutako bideo hauetan irudirik ikusgarrienak bildu dira, musikarik martxosoenarekin eta elkarrizketa bizienekin.

Telebistari dagokionez, oporraldiaren ondotik, Igantziko bestak eskaintzeko indarberritua etorriko da, irailaren bigarren hamabostaldian.

## DISKAK



*«Bidea»*

**Utikan**

*IZ DISKAK*

Sacco eta Vanzettiren omenez eginiko "Heriotz zigorra" kantuarekin hasten da Utikanen azken disko indartsu bezain borobil hau. Jarraian, "Bidea" diskoari izenburua ematen dion kantua entzun daiteke. Eta horren ondotik , "Sorginen gaua", "Etsipena", "Lurralde psikotikoa", "Jolasten", "Eztanda", "Ajia", "Itzelak", "Gertu da" eta "Leihoa" datoz, hamabi kantu baitira denera, Utikanen hirugarren disko honetan agertzen direnak. Dagoeneko badira hamabost urte Utikan sortu zenetik, eta taldekide zein musika estilo ugari ezagutu ditu urte mordoska horretan. Halere beti jakin du aurrera egiten. Oraingoan, Mel , Kokal, Iker, Ran eta Kol dira Utikan, eta Rock-a nagusi, Xabier Silbeira eta Iaki "Agila"ren hitzak jaso dituzte ere kantu hauetan.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Abuztuaren 17tik 24rako prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 6.400 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 218 pta/k.

**Zerramak:**
125/130 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 535
**1.koa** 515
**2.koa** 495
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 545
**1.koa** 525
**2.koa** 505

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 35.000 eta idixkoak 28.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 37.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak: Pta/k**
6-8kilokoak: 1.225-1.275
8-10kilokoak: 1.100-1.150

## JAKIN BEHARREKOAK




# Euroaren inguruko galdemoduak

**Euroaren sarrerak gorabeherak ekarriko ditu prezioetan?**

Ez. Diferentzia bakarra euroen eta zentimoen erabilera izanen da. Gainera, garbitasun printzipioaren arabera ez dugu produktu eta zerbitzuen prezio goratzerik onartu beharko, gisa honetako irregulartasunak zigortuak izanen dira eta.

**Zer da etiketatze bikoitza?**

Produktu baten prezioa pezetatan zein eurotan adieraztea. 2001eko abenduaren 31a bitarte arras garrantzitsua da, kontsumitzaileak euroarekin ohitzen joan daitezen.

**Zer abantaila izanen ditu Batasun Ekonomiko eta Monetarioak kontsumitzaileentzat?**

Abantaila ugari: bertze herrialdeetara egindako bidaietan gastuen murriztea; bertze herrialdeetara fondoen transferentzia egitea merkeago eta erraxago izatea; prezioen transparentzia handiagoa eta horrekin batera prezioen beherakada ekarriko duen konpetentzia handiagoa; maileguen kostua murriztuko duen interes tipoen jeitsiera; lanpostuen segurtasuna bermatuko duen gorakada ekonomiko iraunkorragoa.

*Ez dugu produktu eta zerbitzuen prezio goratzerik onartu behar diru aldaketarengatik*

acción euro
CAJA NAVARRA

**Inbertsioak zein dirutan kobratzen dira?**

Inbertsio zaharrak, 2001eko abenduaren 31a baino beranduago betetzen diren Aurrezki Kutxen bonoak adibidez, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzinera eurotan ordainduak izanen dira. 2002tik aurrera, interesak eta printzipala eurotan jasoko dira.

## LIBURUAK



*Euskara Iruñeko kazetaritzan*
**Joxemiel Bidador**
*IRUÑEKO UDALA*

Joxemiel Bidadorrek 1910. urtetik 1920 urtera Iruñeko egunkarietan agerturiko euskal kazetarien artikuluak bildu ditu. Testu antologia hau lehenengoa da eta gerora begira bertze liburuekin osotuko da. Erran behar da aukezten diren lanen artean eskualdekoenak ere badirela, bertzeak bertze Teodoro Arburua kazetariaren "Bortzerritik" kronikak edo Pablo Fermin Irigarairen "Baztandik" aurkituko ditugu. Diario de Navarran, La Tradicion Navarran, El Pensamiento Navarron eta El Eco Navarron agerturiko idazkiak dira eta mende hasieran euskarak kazetaritzaren munduan zuen tokia baieztatzen dute. Tokian tokiko euskarak errex berezi daitezke artikuluen artean eta gai herrikoiak aipatzen dira batez ere, Elizondo feriak eta Lesaka, Etxalar eta Arantzako bestak bertzeren artean. Liburuan argitaratzen diren 12 kroniketan garai hartako bizimodua eta ohiturak isladatzen dira.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

**ELBETE**
**Irailaren 13tik 17ra.** Gurutze Sainduaren bestak. Xehetasunak 21. orrialdean.

**SARA**
**Buruilaren 8tik 12rat** bestak. Xehetasunak 25. orrian

**OITZ**
**Irailaren 7etik 11ra** bestak. Xehetasunak 17. orrian.

**ERATSUN**
**Irailaren 8tik 11ra** Santa Leokadia bestak. Xehetasunak 18. orrian.

**BERA**
**Irailaren 15 eta 16an** Illekueta auzoko bestak. Xehetasunak10. orrian.

**LESAKA**
**Irailaren 14tik 16ra** Bittiria auzoko bestak. Xehetasunak11. orrian.

### ERAKUSKETAK

**BERA**
**Irailaren 12a arte** Marco Polo erakusketa Kultur Etxean.
**Irailaren 14tik aitzinera** Juan Lameriñas eta Joxe Erregerena erratzuarrek Baztango argazkien erakusketa jarriko dute.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Irailaren 3tik 9ra**
Arantza, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

**Irailaren 10etik 16ra**
Igantzi, Elizondo (Lezaun), Ituren eta Goizueta.

**Irailaren 17tik 23ra**
Lesaka, Narbarte, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

ttipi-ttapa

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. [illegible]

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak

## ETXEBIZITZAK
### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai Legia 53 zenbakian 3. pisuan. ☎ 696 753 366.

**BERA.** 79 m²ko pisu moblez-tatua salgai. ☎ 948 630 943.

**BERA.** 80 m²ko pisua salgai, Ibai-Eder karrikan 3. pisuan. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua, trasteroa, dena kanpoaldera, eguzkitsua. ☎ 943 471987.

**IGANTZI.** 90 m²ko pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. ☎ 687 950 373.


**ADOS**

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

✆ 948 451 841
607 978 656


## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**BERA** pisu ttikia eta moblez-tatua hartuko nuke errentan. ☎ 948 581 982

## ETXEBIZITZAK
### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑEA.** Bi pertsona behar dira **pisua osatzeko.** ☎ 653 733 821

**IRUÑEA.** Ikasleak behar dira **pisua osatzeko.** ☎ 651 365 731

**IRUÑEA. Pisua osatzeko** neska bat behar da. Unibertsitate ondoan dago pisua. ☎ 948 450 756

**BURLATA.** Pisu batean **2 logela alokatzen** dira. ☎ 696 314 174 (Arratsaldeko 7etatik aitzin)

**DONOSTIA.** Antiguo auzoan **2 neska** behar dira pisua osatzeko. ☎ 948 637 124

**DONOSTIA.** Amaran **2 neska** behar dira pisua osatzeko. Biko logela, ikasleentzako ongi prestatua. ☎ 677 613 750.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**DONEZTEBE.** Apararen 75 m²ko nabe pabilioia salgai, 55m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**LEGASA.** 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491.

**LESAKA.** 95 m²ko bajera errentan ematen da Bittiria karrikan. Argindarra eta ura sartuak eta tarima emana, komuna ere badu. ☎ 948 637772.

## LANA
### 301 Eskariak

Elektrizista eskaintzen da lan ttikietarako. ☎ 948 638 153.

## LANA
### 302 Eskaintzak

Leitzan pertsona bat behar da taberman lan egiteko. ☎ 619 450 249

Donostian urritik aurrera, haurrak zaindu eta etxekolanak egiteko **emakumea** behar da. ☎ 943 450 887

Emakumea behar da tarteka etxeko garbiketak egiteko, Zalain auzoan. ☎ 948 387 075

BERA. Arratsaldetan etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Ordutegiekin eta lanean zintzoa izan behar du. Kotxea beharrezko da. ☎ 948 631 489 (gaueko 9etatik aitzin)

GORRAIZ. Neska euskalduna behar da arratsaldez (4etatik 8etara) haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 948 337 211 • 659 776 924


**Alicia T. Erlanz**

BEHAR DITUZUEN
LAN TXIKI
HORIENTZAT

OFIZIALE GUZTIAK

SERVI - LAN...

Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948450193 - Fax. 948450798


## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Trialerako motoa** salgai. Gas-Gas 370 markakoa, 97. urtekoa. 350.000 pezeta. ☎ 696 979 673





**EUSKARA IKASTAROAK**

MAILA GUZTIAK
EUSKARA HEGAN
ALFABETATZEN
EGA
Urritik otsailera
4 eta 2 orduko ikastaroak
egunero edo astean hirutan

BERRIA !!!
Klase presentzialak + autoikaskuntza

Eskatu informazioa: 948 17 76 70
Victoriano Juaristi, z/g (Sanduzelai-S. Jorge)
IRUÑEA

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

*Nafarroako Gobernuaren euskaltegi publikoa*




98ko **Ford Mondeo TD** salgai. Kilometrogutti ditu. ☎ 948 630 819 (Iluntzean deitu)

**Peugeot 206 ADI** salgai. NA-BC. ☎ 948 637 749 (Arratsaldeko 9etatik aitzin)

KTM 250 **enduro motoa** salgai. 2000. urteko modeloa. Hobe da ikustea. ☎ 626 539 051.

**Peugeot 106 Long Beach** autoa salgai, NA-AV. Extrekin, 39.000 km. Arras egoera onean. ☎ 696 075518 eta 948 452098 (gauez)

**Honda Civic** cupé salgai. Egoera onean dago. 1.300.000. ☎ 666 896 331

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450331 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Daiatsu Feroza, Nissan Terrano 3 ate, Opel Frontera TDI, Sangyong Musso
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

Setter arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎ 626 960 177

## DENETARIK

### 701 Galdu/Aurkituak

Berako bestetan **bi giltza** aro batean sartuak galdu zituzten. ☎ 948 630 980.

manelsa
elektrizitate industriala
**Instalazio eta muntaia elektrikoak**
**Mantenimendua**
**Automatismoak**
**Iluminazioa**
Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
**31700 ELIZONDO**
Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
**31195 BERRIOZAR (Nafarroa)**



Hizkuntz Eskola

# Elduaien

30

1996. urteko zerbitzu onenaren aitzindari

*Ateak ireki ditu*

*Matrikula epea: Iraila*

*Klaseak urrian hasiko dira*



- **Euskara**
- **Ingelesa**
- **Frantsesa**
- **Alemana**
- **Gaztelera**
- **Italiera**

☎ 948 510 635
Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

☎ 943 674 733
Kondeko aldapa - 30. • TOLOSA

☎ 943 670 052
Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA

☎ 943 310 753



# Aste batean...

# En una semana...

**21** ordu telebista ikusten
horas viendo la t.v.

**56** ordu lotan
horas durmiendo

**40** ordu lanean
horas trabajando

**5** ordu komunean
horas en el cuarto de baño

**17** ordu otorduak prestatzen
horas preparando las comidas

**10** ordu erosketak egiten
horas haciendo compras

**15** ordu jaten
horas

## MATRIKULAZIO EPEA:
## urriaren 3a baino lehen

*Bortzirietako Euskaltegia*
Lesakako Matxinbeltzenean • 948 637 796
Berako Ricardo Baroja Eskolan • Astearte eta ortzegunez 18:00etatik 20:00etara • 948 625 019

*Leitzaldeko Euskaltegia*
Leitzako Udaletxean • 948 610 776

*Malerrekako Euskaltegia*
Doneztebeko eliza parean • 948 451 555

para entenderno

ika

elkar ulertzeko